

GUaiXE.eUS



Berastegi, etxean jokatzeko

>> 14-15

GUILLAUME MEZIAT

Alusti Testa, klinikaren azken fruitua

>> 7



euskalkiak.eus web orriaren aurkezpena >> 5



Altsasuko bi adintxikiko Madrilerara >> 8



Kinto ospakizunak han-hemen >> 6



Pop-rock lehiaketa Lakuntzan >> 3



Naiara Diez erreginaren kopan >> 13

Sakanako elurraren eguna >> 11



ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com
www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



Alberto ZORIONAK AITA-TXO!!! Prestatu bizko-boa ospatzeko. Maite zaitugu. Izei, Olaia eta ama.



Izei ZORIONAK IZEI!!! Gure etxeko futbolaria. Izugarri maite zaitugu. Olaia eta gurasoak.



Eukene ZORIONAK EUKENE!!! Askok maite zaitugu guapa. Izei, Olaia eta familia.



Eneritz ZORIONAK PO-TXOLA! 6 urte!! Egun politta pasa eta muxu asko. Marian eta familia osoaren partez.



Eneritz ZORIONAK! Muxu asko eta segi beti bezain langile eta zintzoa izaten. Muxu handi bat. Aitatzeko eta amatxo.



Loitek Gernika Bizkaia
Aupa ekipo! Zorte on Gironan eta ea kopa ekartzen duzuen! Animo!

» Arbizu / Altsasu

Bost bikote EHko mus txapelketara



Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketak jokoan dira. Arbizun 19 bikotek eman zuten izena. Ilbeltzaren 29an Karrika tabernan jokatu zen kanporaketako podiuma eta, ondorioz, Nafarroako finalerako sailkapena hiru bikotek lortu zuten: Amaia-Mitxel, Alain Berastegi-Fran Balda eta Koldo Flores-Gorka Iriarte.



Altsasuko kanporaketa Zubi-ondo elkartean jokatu zen larunbatean. Dozena bat bikotek parte hartu zuten eta finalera iritsi ziren bi bikoteak Iruñean jokatu den Nafarroako finalerako txartela eskuratu zuten. Otsailaren 25ean Iruñean lehiatuko dira Altsasuko muslari txapelkunak, Amaia eta Kopi, baita txapelkun-ordeak Joakin eta Alejandro. Altsasuko kanporaketako podiuma Anso aita-semeek osatu zuten.

Otsailak

10-16

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Jorge Sanchez. Otsailaren 11n, larunbatean, 19:00etan Lakuntzako kultur etxean.

Brigada de la Cólera, Bendiak, Aitor Lizarraga, Txen eta Artola. Otsailaren 11n, larunbatean, 23:00etan Altsasuko gaztetxean. **Garraxi festa.**

Antzerkia

Francoren bilobari gutuna. Otsailaren 11n, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Artedrama.**

Peter Punk. Otsailaren 12an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Tdiferencia.**

Por la espalda. Otsailaren 12an, igandean, 19:30ean Irurtzungo kultur etxean. **La Puerta Roja Teatro.**

Dokumentalak

Cincuenta + Treinta. Otsailaren 10ean, ostiralean, 19:30ean Irurtzungo kultur etxean. **Bideko Mitxingorria.**

Zinema

Sunset song. Otsailaren 10an, ostiralean, 21:45ean eta otsailaren 12an, domekan, 20:00etan Altsasuko

lortia kultur gunean.

Silencio. Otsailaren 10ean, ostiralean, 22:00etan eta otsailaren 12an 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Vuelta a casa de mi madre. Otsailaren 16an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Bizikleta irteerak

Txurruko punta (46 Km) Otsailaren 12an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 9:20ean Bioitza kanpinetik. **Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Euskal Herriko inauteriak tantaka. Otsailaren 15era arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean. **Javier Belasko.**

Altsasuko inauteriak. Otsailaren 15tik martxoaren 4ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean.

Hitzaldiak

Informazio hitzaldia. Otsailaren



10ean, ostiralean, 17:00etan Altsasuko Txioika ikastolan. **Iñigo Aritza eta Txioika ikastolak.**

Euskalkien webgunearen aurkezpena. Otsailaren 10ean, ostiralean, 18:30ean Bakaikuko udaletxean. **Aurkezlea: Koldo Zuazo.**

Tortura eta indar okupatzaileak Euskal Herrian. Otsailaren 11n, larunbatean, 11:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. **Hizlariak: Nerea Zabala (Basajaunen senidea), psikologoa eta Nerea Orarregi (1997an Guardia Civilak atxilotua). AEM.**

Bertsolaritza

Saats Karasatorre, Joanes Ilarregi, Ander Fuentes eta Eneko Lazkoz. Otsailaren 10ean, ostiralean, 22:00etan Etxarri Aranazko Leku Ona tabernan.

Bestelakoak

Segurtasun eta identitate digitala zaindiz. Otsailaren 10ean, ostiralean, 17:00etatik 19:30era Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Elkartasun argazkia eta zortzikoa. Otsailaren 11n, larunbatean, 12:45ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Herri-asanblada.

Txingurrikolore. Otsailaren 12an, igandean, 17:00etatik 19:30era Lakuntzako kultur etxean.

Informazio kontzentrazioa. Otsailaren 13an, astelehenean, 10:00etatik 20:00etara Altsasuko -udaletxe parean. **Herri-Asanblada.**

Argi itzaltzea eta elkarretaratzea. Otsailaren 14an, asteartean, 10:00etatik 20:00etara Altsasuko lortia kultur gunean. **Herri-Asanblada.**

2016an turismo arloan landutako proiektuen berri. Otsailaren 15ean, asteazkenean, 18:00etan Lakuntzan, Sakanako Mankomunitatearen egoitzan. **SGA.**

Deialdiak

Altsasukoak aske. Otsailaren 10ean, ostiralean, 19:00etan Altsasuko udaletxe parean.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Otsailaren 10ean, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Torturaren kontra. Otsailaren 11n, larunbatean, 13:00etan Etxarri Aranazko plazan. **AEM.**

Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da. Otsailaren 12an, igandean, 12:30ean Etxarri Aranazko Kale Nagusiko 7. zenbakian.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Otsailaren 12an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Ostiralero SAIOA
9:30ean
Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Asteleheneetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



Esataria: Maider

Gaurko gaiak:

- Urdiaingo Kintoekin elkarrizketa
- Zoila Berastegi aktorea
- Josu Alustiza, Josefina Arregiko fisioterapeuta

larunbatean, zuzenean
Osasuna - R. Madrid
Liga jardunaldia. 20:00tan

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

ROBOTIKAREKIN HITZORDUA:
Urdiaingo Robotika Taldeko Jentiltroniks eta Elektrodinamiks taldeek Nafarroako First Lego League proban (FLL) parte hartuko dute bihar. Bertan, guztira 22 taldek prestatu dituzten robotak aurkeztuko di-

tuzte, 10:00etatik 19:30era luzatuko den jardunaldian. 230 neska-mutiek, gainera, emakume zientzialari buruzko posterrak azalduko dituzte. Izan ere, biharkoa Emakumeak eta Neskak Zientzian Eguna baita.

ezkaatza >>

SAKANA

Argindar dorre baten matxurak mozketak eragin zituen

Joan den asteko haizeteek argindar sareari eragin zion. Txipu bat argindar sarearen gainera erori eta dorre baten haustura eragin zuen Urdiainen. Horregatik, osteguneko 15:00etatik 22:20ra argindarrik gabe egon ziren Bakaikun; Iturmendin eta Urdiainen ere ordu luze izan ziren argindarrik gabe, 17:30etik 22:30era arte gutxienez; Etxarri Aranazko osteguneko etena ordu baten ingurukoa izan zen eta puntuala Altsasun.

Ostiralean *Red Eléctrica Española*-lako langileak dorrea konpontzen ari ziren eta Burundako hiru herrietan, ostiralean, 20:00etan berrezarri zen argindar zerbitzua. Bitartean, Iberdrolak ekipo elektrogeno handiak jarri zituen hiru herrietan, 800 bezerori zerbitzua emateko eta ostiralean argindarra izan zuten. Hala ere, konponketengatik Bakaikun, Iturmendin, Urdiainen eta Etxarri Aranazten hainbat argi mozketak izan ziren ostiralean. Azken horretan, auzoka izan ziren, 10:30etik 14:00ak aldera arte eta 6:20 aldetik 20:00ak arte.

Lakuntza

Sakanako pop-rock lehiaketa antolatu dute Lakuntzan

Hilaren 28ko 13:00ak arte eman daiteke izena Lakuntzako udaletxean, bulego ordutegian, edo www.lakuntza.eus web orrian. Parte-hartze inprimaki guztia bete behar da

Lakuntzako Udala, La Banda del jefe Bigun taldea eta Hatortxu Rock izan dira lehiaketa antolatu dutenak. Ibarrean popa edo rocka jotzen duten musika taldeak sustatu asmoz antolatu dute Sakanako pop-rock lehiaketaren estreinako edizioa. Taldeko kide guztiak edo %80 baino gehiago sakandarrak dituzten taldeak aurkeztu daitezke lehiaketara. Ezin izanen dute diskoetxe batekin kontratarik indarrean izan. Baina autofinantzatutako diskoak argitaratu dituztenek aurkezteko aukera izanen dute. Talde bakoitza izen bakarrarekin aurkeztu daiteke, nahiz eta taldekideren bat beste talderen batean jo dezakeen.

Izena ematen duten talde guztiek apirila eta maiatza bitartean

jokatuko den kanporaketa fase batean ariko dira. Antolakuntzak zehaztutako datetan bizpahiru taldez osatutako emanaldiak izanen dira Lakuntzako kultur etxean, 19:30ean hasita. Talde bakoitzak 15 eta 25 minutu arteko emanaldia eskaintzeko aukera izanen du. Hiru talde onenak bukaera fasea pasako dira eta azken emanaldi batean erabakiko diru lehiaketako hiru sariak.

Antolakuntzak aukeratuko du epaimahaia. Emanaldietako publikoak kanporaketa fasean sari bereziko botoa emateko aukera izanen du. Azken fasean, hiru sarierarako. Boto horiek epaimahaikide baten balio bera izanen dute. Lehiaketako emanaldi guztietako prezioa bi eurokoa izanen da. Sarretan lortutako diru guztia sarieratara bideratuko du antolakuntzak.

Baldintza gehiago

Musika taldeek, gutxienez, euren



Hatortxu Rock-en 10. urteurrena ospatu zeneko kontzertu baten irudia.

lau kanta aurkeztu beharko dituzte. Emanaldiaren gainontzeko tartea bertsioekin osatu dezakete. Abesti guztiak egile edo konpositoreen onarpenarekin eta baimenaren egiaztapen agiriarekin batera aurkeztu beharko dira. Bestela, salaketarik balego taldea izanen litzateke arduradun bakarra. Talde irabazlea deseginen balitz edo taldekideen funtsezko aldatetak baleude saria bigarren sailkatuari emanen lioke antolakuntzak. Oinarri guztiak www.lakuntza.eus web orrian daude.

Sariak

- 1. Diskoa grabatzeko 40 orduko grabaketa** antolakuntzak aukeratutako musika-estudio batean. Master-kopia edo nahasketa, taldearen kontura.
- 2. Abesti baten produkzioa eta grabaketa** egiteko 8 orduko jardunaldia musika-estudio batean, ekoizle profesionalarekin.

Sari berezia. Hatortxu Rock 20n kontzertua ematea.

IKASTOLA EREDUA HEZKUNTZA ERALDATZEN



IÑIGO ARITZA
IKASTOLA



ANDRA
MARI
IKASTOLA





Raf Atxuri

astekoa

Aiora naiz

(eta harro gaude)

Urtarrilean bolo-bolo, puri-purian etajira-birakari ibilizensare sozietan barrena Aiora izeneko neska batek Facebook-era jaurtiriko euskara hutsezko bideo bat. Zera-bilkien gaia El Conquis-eko partaide baten jardun lerdoa zen.

Aioraren tonu zein hausnarketa zuzenak ziren oso, adi entzuteko eta begiak zabalik ikusteko bide-otxo, alajaina. Kontua da sorkari hau izugarri zabaldu zela lehen-lehen unetik Facebook-en eta gaue-tik goizera espainiar estatuan ikusienetakoa gertatu zela. Izugarri zabaldu eta harrigarri hedatu jende ugariaren iritziz. Erreakzio parrasta ekarri zuen Aioraren honek eta iruzkin mordoa, horietako asko gaztelaniaz. Batzuketatik eskandaluz kexuziren azpititulurik ez zekarrelako, baina ez ziren falta, izpirik ez ulertu arren, euskararen edertasuna gorai-patzen zutenak, gaztelaniaren mundutik gutxitan ikusten dugun politzia erakutsiz.

B. Etxeparek 1545ean bota zuen halako "Jalgi hadi plazara" ausart eta banguardista bat, inprentaren zabalkundeak zekarren aukeraz eta premiaz arras jakitun. Hizkuntzak, tiki zein handi, bizirik iraungo badute garaian garaiko ibili beharreko (heda) bideak baliatu beharrean daude. Eskolara, unibertsitatera, irratira nahiz telebistara euskararen doinua berandu iritsi zen, beranduegi. XXI. mendeko aro digitalean, ordea, euskararen plazaratzea azkarragoa eta sakonagoa suertatzen ari da, besteak beste, Aiora bezalako ehundaka lagun jarraitzen kementsu eta kreatiboari esker: Plazaz-plaza, Etxepareren ametsari ekinez, bide malkartsuan gora beti ere.

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunak EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU eginen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasan Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foru plaza, 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.eus edo 948 564 275 telefonoa.**

hara zer dien

Adingabekoen alkohol kontsumoa guztion erantzunkizuna dela ohartarazten du FAD-ek

Abendutik apirilera bitartean ikusgai dagoen FAD-en (Drogenpeketasunaren Kontrako Laguntza fundazioa) kanpainak adintxikikoen alkohol kontsumo bidez hausnartze bide ematea du helburu nagusia. Kontsumo hauek oso larriak direla eta gizarte osoak aurre egin behar dion egoera dela adierazi nahi du FAD-ek ekimen berri honekin.

Haien esanetan, gizarteak orokorrean uste du adin txikikoen alkohol kontsumoa gure arazoa ez dela. Horregatik, Zerbait egingo dugu? da kanpaina honen eslo-

gan berria, gizarte osoari dago zuzendua, eta adin txikikoek alkohola kontsumitzeak ekartzen duen arazo larriaz hausnarketa eragitea du helburu.

Horren bidez adierazi nahi digute adintxikikoen alkohol kontsumoa guztion arazoa dela, guztiak garelako parte eta hain larria den egoera honi guztion esku-hartzearekin aurre egin behar zaiola.

Oraingo kanpainaren edukia honakoa da: "FAD-ek BERRI TXAR BAT ETA BESTE OKERRAGO BAT DU. Berri txarra: 480.000 adingabe baino gehiago

mozkortu dira azken hilabeteetan. Berri okerragoa: honek gurekin ez duela zerikusirik uste dugu denok. ADIN GABEKOAK ETA ALKOHOLAREN ARAZOA GURE ARAZOA EZ DELA USTE DUGU DENOK, HORI DA ARAZOA. Zerbait egingo dugu?"

Kanpaina bideratzeko telebistarako, irratirako eta prentsarako eta kalerako iragarki bana egin dute. Sare sozialetan mugitzeko, adingabekoen kontsumitzeko ardura edo ardura-eza gehien duten kolektiboek zuzenduta dauden beste bi bideok ere osatzen dute kanpaina.

Adibidez: "Atzo Espainiako parke batean gazte talde batek botiloa egin zuen, heldu batzuk ikusi zuten, baina ez zuten ezer egin bere ardura ez dela uste dutelako", "gaur aita batek bere semearekin alkoholaren arazoaz hitz egin beharko duela pentsatu du, baina azkenean ez zaio momenturik aiposena irudituta eta beste egun baterako utzi du", edo "atzo adingabe bat alkohola erostera joan zen eta dendariak arazorik gabe saldu zion, berak saldu ezean beste edozeinek salduko ziolakoan".

Sakanako Prebentzio Programak

gutunak

Urte bat pasa eta gero...

(errepresioaren aurka, zaleen eskubideen alde)

Ruben Imaz, Indar Gorriko kidea

Duela urte bete, egunari eusteko nagiekin jaiki ginen. Inondik inora espero ez genuena zen gaua kalabozo ilun eta heze batean bukatzea.

Adierazpen askatasuna, zaleen eskubideak mehatxatu eta murriztu dizkigute, nork eta curriculum faxista oparoa duten pertsonaia batzuek, hala nola, Tebas, Fdez. Diaz eta instituzio eta klubetako arduradunek.

Ezin dugu gure sinborik eraman... futbol zelaiek elkartzeko eta festarako toki izateari utzi diote, errepresioaren laborategi bihurtzeko.

Gure pasioaren bazkide egiteko ordaintzen dugulakoan, benetan gure burua arriskuan jartzeko ordaintzen dugu. Kolpatu gaitzaten, isunak jaso ditzagun eta debekatu gaitzaten. Eskubiderik eta askatasunik gabeko merkantzia izatera pasa gara.

Duela urte bete, futbol moder-

noaren sortzaileek, ate birakariaren lagunek eta ustelkeriarekin dantzan ari direnek **gaizkile taldea** ginela esan ziguten. Noiz eta zaleen eskubideen eta askatasunen inguruko borroka sekula baino aktiboago geneukanean.

Osasunaren zaleen aurkako errepresio kolpe lotsagarri hau gertatu zenetik urte bete pasa ondoren, harro gaude garena izateaz.

Gorritxo amorratuak gara, eta harrotasunez, erotu arte maite dugun herri honen parte ere bai. Abertzaleak eta antifaxistak gara, Eladio Zilbetik eta beste hainbat nafarrek utzitako lekukoa hartu dugunak.

Pasioz eta identitatez osatutako lekukoa, eta trepa, golpista eta kunetero guztien aurrean defendatuko duguna. Indar okupatzaileek eta erregionalista traidoreek jazarri zituztenen bilobak gara, baina orain gauzak aldatzera gatoz, **GERTUBAITAGO GARAIPE-NAREN EGUNA!**

Gogoan ditugu, beste muntai polizial baten ondorioz preso

dauden Adur, Jokin eta Oihan altsasuarrak. Elkarrekin desmuntatuko ditugu muntai polizial, judizial eta mediatiko hau eta gainontzeko guztiak.

Etxarri Aranatz- Beilatokia

M⁸ Puy Gorri, Etxarriko Beilatokiaren Aurkako Plataforma

Etxarri Aranatzko beilatokiaren aurkako taldea hizketagai azaldu da zenbait iritzietan. (...)

Askok jarraitzen dugu gure etxeko hildakoei azken agurra etxean ematen. Beste batzuk beilatokia erabiltzen dute. Bi aukerak errespetagarriak dira, baina ez da bidezkoa eta gutxiago zuzena gure bizilekuen aurrealdean edota azpian hildako bat bestearen atzetik beilatu nahi izatea.

Bidezkoa eta zuzena ikusten al duzue egunero eta segidan sendi bat edo beste baten dolua bizi behar izatea? (...) Berrito esango dugu: EZ GAUDE BEILATOKI ZERBITZUAREN AURKA BAIKIKI ETA GURE LEIHO ETA ETXEEN AURREZ-

AURREKO KOKAPENAREN KONTRA.

Hementxe dator gure idatzi honen gaurko mamia: badago nork adierazi gure sentsibilitate falta azken agurraren unea iristerakoan (heriotza etxeko eta familiako berotasunaren gandik urrutiratu nahi izana) eta kasualitatea iritzi honen atzean zein topatu eta beilatoki enpresarentzako partaide edo kolaboratzaile zuzena den psikologoa. Cabodevilla jaun, beilatoki enpresa honen zerbitzuen artean, zure eskaintza aurkitzen dugu. Bakarkako kontsultak, taldekoak, hitzaldiak, etab... dolua laguntzeko aktibitateak eskura jartzen dituzue lore, hil-kutxa eta abarren artean. Zure iritzia ez dira batera inpartzialak, oso interesatuak baizik.

Dirudienez, heriotzarekin batera sortutako beharrak... naturaltasunak ukituak... negozio iturri bihurtzen dira!!!

Bizilagunok irtenbide egoki baten bila jarraitzen dugu...

NAHI IZANEZ GERO, POSIBLE DA.

Osorik: www.guaixe.eus

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILA: Ruben Imaz Alcaide • maketazioa@guaixe.eus
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitate@guaixe.eus
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Jon Otermin Benito, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza

ZUZENTZAILEA: Felix Alzelai

ARGITARATZAILA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800

Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675

KOORDINATZAILA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus

DISEINU ZERBITZUA: GK • Ainhoa Etxeberria Pikabea •

gk@gkomunikazioa.eus

ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995

TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK 



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

ZISTERNA-KAMIOIAREN ISTRIPUA: Olazgutiko Vista Alegreko errotondan izan zen ezbeharra herenegun. Zisterna-kamioia buelta hartzen ari zen eta gainera hi-

ru pinu eta argindar linea gainera erori zitzaizkion. Gidariak ez zuen minik hartu. Suhiltzaileek esku hartu behar izan zuten.

sakanerria >>

>> Bakaiku

Zuazok www.euskalkiak.eus web orria aurkeztuko du

Gaur, 18:30ean, Bakaikuko udaletxean

Koldo Zuazo hizkuntzalari eibarrak urteak daramatza euskara eta euskalkiak ikertzen. Urdiainen ere egonaldia egin ditu bertako eta Burundako euskalkia ikertzeko. Horren fruitu izan zen Sakanako euskara. Burundako hizkera liburua (2010, Euskaltzaindia-Nafarroako Gobernua). Sakanan eta Euskal Herrian barna egindako bere lanaren emaitza interneten, www.euskalkiak.eus webgunean

nean ikus daiteke. Zuazo gaur Sakanan aurkeztuko du webgunea, Bakaikuko udaletxeko batzararetoan.

Euskalkiak.eus webguneak euskalkiei buruzko informazioa ematen du. Besteak beste, sailkapenak, euskalkien ezaugarriak, jatorria eta euskararen batasuna lantzen ditu luze eta zabal. Gainera, ikusentzunezkoen atala ere badu Bertan hiztun desberdinekin egindako elkarrizketak jaso dituzte. Zuazo kezkatuta dago euskalkiak



Hainbat bakaikuarrek bertako euskalkia sustatu nahi dute.

galtzen ari direlako, eta hori aldatzeko nahiak bultzatu du webgunea sortzera. Zenbait bakaikuarere

bertako hizkeraren osasunarekin kezkatuta daude eta, horregatik, antolatu dute hitzaldia.

>> Altsasu

D ereduan matrikulatzeko zergatiak

Horiek jaso eta bideo batean eman ditu Altsasuko Udalak, guraso altsasuarrek euren seme-alabak euska-



Saioa Larraza Arnanz, bideoan.

razko ereduan matrikulatzeko gonbidapena egitearekin batera. Dereduan zergatik matrikulatu behar den argudiatzen dutenen artean daude Izaskun Etxeberria (D ereduko irakaslea), Eduardo Aldasoro (hizkuntzetan aditua eta Nafarroako Gobernuko langilea), Saioa Larraza (hizkuntzalari), baita Altsasuko alkatea eta talde guztietako zinegotziak, UPNkoa salbu. Bideoa elebiduna da, azpidatziekin.

>> Irurtzun

Historia-memoriari eskainitako asteburua

1936ko gertakariak eta ondorengo aztertzen duten dokumentala eta antzerki emanaldia programatu ditu udalak

Irurtzungo Udalak historia-memoriari eskaini dio asteburua. Alde batetik, Bideko Mitxingorria taldearen *Cincuenta + Treinta. Memoria bizia* dokumentala emanen da gaur, 19:30ean, kultur etxean. 1936. 1986. 2016. Hiru urte horiek oinarri hartuta memoria historikoaren iraganaren, orainaren eta etorkizunaren inguruko hausnarketa egiten du dokumentalak.

Haren oinarria Sartagudan 1986an biktimen omenez egindako kontzentrazio, manifestazio eta azken ekitaldian grabatutako bideoa da. Orduan grabatutako irudiek, bere eduki politikoaz aparte, garrantzi handia dute dokumentu historikoa direlako, eta sortzen duten inpaktua gizarte eremu guztietako pertsonen lekukotasunek (mundu akademiko, profesional, kulturalekoak, asoziazio eta erakunde mundukoak) eragiten dute. Izan ere, lekukotasun horiek adierazten digute 70. hamarkadan memoria berreskuratzeko hasitako bideak jarraitasuna eta gaurkotatzen osoa dituela.

Por la espalda antzerkia



La Puerta Roja antzerki taldearen *Por la espalda* antzezlana osatuko da historia-memoriari eskainitako asteburua. Antzezlana igandean jokatuko dute, 19:30ean, kultur etxean. Mola jeneralak gidatutako armadak estatu kolpea eman du garilaren 18an. Errepublikari fidela zen Guardia Civileko komandante Jose Rodriguez-Medel bizkarretik tiro eginda erail zuten bere menpeko agenteek. Josu Castillok idatzitako antzezlana hurrengo eguneko arratsaldean kokatzen da, eraildakoaren emazte Luzia Carmona iruindarraren lehengusu Fanny Valentinen kapela eta kortse dendan (benetako pertsonaiak eta denda). Antzezlanean atzeguardian zapalketa latza pairatu zuten emakume, ama eta alaben begirada islatzen da. Tani, Javier eta Lutxiren istorioa kontatzen da. Apalak, izugarrikeriaren atalasean harrapatuta: hiruren istorioa ere maitasun, konpromiso eta indarkeria istorioa da. Haien mundua, gure egungo mundua, orduan eta orain kontraste berberetan harrapatuta. Antzezlana eragin jasotako dirua Nafarroako fusilatuen senitartekoen elkartearendako izanen da.

SAKANA

Turismo arloko proiektuen berri, bilera irekian

Otsailaren 15ean, asteazkenean, 16:00etan Mank-en Lakuntzako egoitzan

Sakanako Garapen Agentziak turismo arloan hainbat egitasmo landu zituen joan den urtean. Barne lan horren fruitua jendaurrean aurkeztu nahi du orain. Sektoreari eta interesa duen guztiari zabaldu dio asteazkeneko bilera irekiera joateko gonbidapena. Sakanako Turismo plana, Sakanako marketing plana, Sakanako Donejakue bidea / Ibilbide zikloturista, Sakanako xendak eta beste-lako egitasmoen berri emanen dute. Haiek garatzeko emandako urratsak eta nondik norakoak azalduko dituzte.

Izen ematea

Aldez aurretik egitea eskertu da, furbirtarte@sakanagaratzen.com helbidera idatziz.

>> Profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko ikastaroa Altsasun

Industria-automatizazio sistemen muntaia eta mantentzea Lanbide Heziketa institutuan izanen da. Langabeek izen emateko epea zabalik dute

Nafar Lansarek profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko 16 ikastaro antolatu ditu lehen sei hilabeterako. Horretarako, enpresek dituzten premiak aztertu ditu aurretik Nafarroako Enplegu Zerbitzuak. Horiek Hezkuntza Departamentuaren ikastetxeetan emanen dira. Sakana Lanbide Heziketa institutuan elektrizitatearekin eta elektronikarekin zerikusia duen ikastaroa izanen da: industria-automatizazio sistemen muntaia eta mantentzea. Ikastaroa martxoaren 6an hasietagarrilaren 27an despedituko da. 390 ordu guztira. Enplegu bulegoan eta www.empleo.navarra.es web orrian dago informazioa.

Amaya
Okidegi-gozotegia

Araia (Araba)
945 314 572

Olazti
948 468 755

Uharte-Arakil
667 353 503

Etxarri-Aranatz
948 461 660

Lantegia: Teileria Aldapa S/N
Altsasu
948 562 205

panaderia · okidegia

San Juan kalea, 50
Altsasu
670 389 017

Otadiako Kristo
Deuna Plaza, 19
Altsasu
948 562,185

BM-supermerkatua

Zumalakarregi Plaza
Altsasu
948 468 026

barrutik kanpora

Hiru nafarretatik bik ez dakite bere argindar kontratua librea edo erregulatua den

Nafarren % 67k ez daki bere argindar kontratua merkatu erregulatuan dagoen edo bere konpainiarekin merkatu librearen barruan izenpetu zuen. Badakitenen artean, % 17k merkatu libreko tarifa dauka eta % 16k kontsumitzaile txikiarentzako borondatezko prezioa.

Erregulatutako merkatuan, energiaren prezioak publikoak dira; merkatu librean, aldiz, prezioa eta baldintzak enpresa eta kontsumitzailearen artean hitzartutakoaren arabera izaten dira.

Horregatik, edozein kontratu sinatu aurretik, funtsezkoa da baldintza guztiak idatziz eskatzea eta arretaz aztertzea.

Argindar merkatuaren liberalizaziotik aurrera, kontsumitzaileek kontratu libreak izenpetu ditzakete merkaturatzaileekin. Hala egiten ez badute, erregulatutako tarifarekin jarraituko dute.

Horrela bada, ordainagiriaren goialdean kokatuta dagoen konpainiaren izenean, "erreferentziatzako merkaturatzailea" dela agertu behar du eta "Kontratuaren datuak" atalean (beherago) kontratu mota KTBP (Kontsumitzaile txikiarentzako borondatezko prezioa) dela adierazi behar du.

Aitzitik, baldin eta tarifa merkatu librekoa bada, fakturaren goialdean enpresaren izena agertuko da, baina ez du "erreferentziatzako merkaturatzailea" adieraziko; kontratuaren datuen atalean, kontratu mota "merkatu librea" dela agertuko da.

Kontuan hartu behar da, etxebatean urteko batzbesteko gastu elektrikoaren ezberdintasuna hirurehun eurotakoa izan daitekeela kontratatuta duen eskaintzaren arabera.

Energia potentzia eta kontsumoaren prezioaz gain, merkatu libreko kontratuetan prezioa areagotzen duen beste kontu bat zerbitzu gehigarriak dira, eta horiek urteko ehun euro baino gehiagoko garestitzea ekar dezakete.

Iratxe kontsumitzaileen Elkarteak

>> Bakaiku

Kintoak parrandara!

Bakaikuko aurtengo kintoak Itsaso Zelaia, Maialen Etxeberria, Jon Zelaia eta Naroa Larraza dira. Haiekin batera ospakizunera bi kinto zahar eta hiru kinto gazte batuko dira. Bederatzikoteak Bakarrekotea elkartean bazkaldu eta afalduko du gaur. Joan den urtean dirueskeko hondarrekin pagatuko dituzte jan-edanak eta gero Altsasura joanen dira parrandan.

Larunbat goizean, trikitilariak lagun dituztela, kintoak herrian barna eskean ariko dira. Bakaikuar eskuzabalek emandako soson kontura izanen dira kinto ospakizunak. Eske-aldia despedituta, bederatzikotea, musikariak, beste kinto zahar eta koadrilek autobusez nor bere sagardotegira joanen dira. Giro ederrean bazkaldu ondoren, iluntzerako Altsasura bueltatuko dira kintoak. Han afaldu eta parranda ordu luzetaraino luzatuko dute. Kinto ospakizunak despeditzeko elkartean afaltzera elkartuko dira. Zeinek bere ajearen berri eman eta, suertatuko balitz, parrandak segituko luke.

>> Iturmendi

26 neska-mutikok ospatuko dute kintoen festa

Gaur gauean hasiko dituzte kintoek euren ospakizunak. Aurten 9 kinto daude, baina haiei 16 urtetik 20 urte bitarteko gazteak gehitzen zaizkie. Beraz, guztira 26 neska-mutikok ospatuko dute. Ondokoak dira aurtengo kintoak: Idoia Rubio, Xabier Aramendia, Joseba Galarza, Maria Zubieta, Maialen Aramendia, Iradi Galarza, Santi Arce, Daniel Mateos eta Jon Lanz.

Aritzaga elkartean bilduko dira afaltzera eta jai giroa ordu txikietaraino luzatuko dute bertan gaur. Bihar, 11:00ak aldera Aritzagan gosalduko dute, ondoren hasiko baitira eskean. Borondatea eskatzen eta, trukean, pastak eta moskatela eskaintzen. Trikitilariak izango dituzte lagun.

Herriari buelta eman ondoren, geldialdia egingo dute Aritzaga elkartean bazkaltzeko. Eta arratsalde gau partean Altsasura joko dute, bertan parranda egiteko asmoz. Horrela despedituko dute aurtengo Santa Ageda.

>> Ziordia

Hemen dira kintoak!

Bazkaltzera elkartuko dira gaur Maite Cristobal Gil, Leire Bergera Aramendia eta Amaior Bengoetxea Ijurrak kinto ziodiarrak. Urbasa tabernakoek prestatutako haiekin batera elkartean janen dute Ainara Fernandez eta Gorka Mujika kinto zaharrek eta Ailetz Lasa, Oier Otxoa eta Markel Mendoza kinto gazteek. Zortzikote hori izanen da Ziordiko kinto ospakizunen protagonista. Iluntzean, Altsasuko kintoak dantzan ikustera etorriko dira. Elkartean afaldu ondoren, Altsasun despedituko dute gaua.

Larunbat eguerdirako kalean izanen da kinto-segizioa, herrian barna eskean ibiliko baitira, trikitixa joz, musikariak baitira aurtengo hiru kintoak. Lanak eginda, elkartean gurasoek prestatutako bazkaria janen dute. Iluntzean Altsasurako bidea hartuko dute, kintoak dantzan ikusi, afaldu eta ordu txikiak arte izanen dira parrandan. Kinto ospakizunak despeditzeko Urbasa tabernan bazkaltzera elkartuko dira eta herrian egindako parrandarekin agur esanen diote festari.

>> Uharte Arakil

Herri guztia kinto!

Bizpahiru urte dira Uharte Arakilen herri guztia kinto ospakizunak elkarrekin egiten hasi zirela. Inauteriak iritsi baino bi aste lehenago ospatzen dute. Adin guztietako kintoak, zein bere adinakoarekin, bazkaltzera elkartuko dira bihar. Ondoren parrandak luze iraunen du. Aurten, 23tik aurrera ospatuko dute euren festa.

>> Iturmendi

Zazpigarrenaren bila

Iturmendiko Gazte Asanbladak Ximona gaztetxearen seigarren urteurrena ospatzeko egitaraua antolatu zuen larunbaterako. Hotzari aurre eginez koadrilatxo bat Santa Marinara igo eta han bazkaldu zuen. Herrian buelta gazte gehiagok egin zuen ospakizunarekin. Iluntzeko kontzertuekin ordu txikietan despeditu zuten gaztetxearen urteurrena.

>> Altsasu

Kinto ospakizunen bigarren zatia

Altsasuko kintoek domekan eta astelehenean izan zituzten euren ospakizunaren hasiera. Asteartean eta asteazkenean atseden hartu zuten. Larunbatean urte guztieta-

ko kintoak elkartuko direnez, haiekin bat egiteko egin dute etena euren ospakizunean. Atzo, gaur eta bihar berriro 19:00ak aldera agertuko dira Foru plazara, zortzikoa dantzatze-

ra. Jakina, parranda ordu txikiak arte iraunen du. Kinto gastuei aurre egiteko domekako kinto eskean 18.453,94 euro eskuratu zituzten. Hamarkadetan Vasconia edo Popu-

lar bankuan zenbatu ondoren, azken urteetan Gure Etxea eraikinean zenbatu izan dute jasotako sosa kintoek. Aurten, berriro, segurtasun enpresa batek zenbatu du.



Opil-makilarekin sorbalda gainean eta astoari tiraka ibili ziren 2017. kintakoeak.



Diru-bilketaren atseden une bat San Juan kalean. JON OTERMIN BENITO

>> Irañeta

Santa Ageda eta inauteriak ospatu zituzten

Asteburu potoloa izan dute Irañetan. Santa Ageda koplak kantatzera ateratzeaz gain, larunbatean ihoteak ospatu zituzten. Goi-

zean Atxon Zarkua pertsonaia prestatu, eta arratsaldean herriari buelta eman zuten berarekin. Bukaeran, sutan bukatu zuen Atxon Zarkuak. Bazkariaketa aforiak ez zuten huts egin Irañetan eta Uharte Arakilgo joaldunen bisita ere jaso zuten.



>> Olatzagutia

Akabo kintoak!

Jon Otermin Benito

Pasa den larunbatean Santa Ageda ospatu zuten Olatzian. Urtero bezala, aurtengo kintoei 45 eta 60 urtekoak gehitu zitzaizkien lehen ordutik. Ohitura denez, gazteenak herrian zehar ibili ziren eskean,

txarangaren musika atzetik zermatela. Euriak bere agerpena egin zuten, baina nahiz eta eguraldi kaxkarra izan, herritarrak girota ibili zirengo osoan zehar. Aurtengoan, Argoitz eta Mikele Razkin anai-arrebak izan ziren kintoak gazteenak.



SAKANA

Alusti Testa, Josefina Arregi klinikaren azken fruitua

Pertsonen gaitasun fisiko eta funtzionala baloratzeko balio duen eskala bat sortu dute Iosu Alustiza Navarro fisioterapeutak eta Juan Jose Calvo Agirre geriatrak. Hura balioztatze lanean ari dira

“Nere eguneroko lanean gaixoak hobetzen zutela ikusten nuen. Dena sentsazioak ziren, baina, azkenean, erakutsi behar da. Hori eskala baten bidez erregistratzeko behar bezalako modurik ez genuen. Guk bagenekien gaixoak hobetzen zirela, baina kongresuetan eta aurkezteko erregistratu behar da”. Josefina Arregi klinikapsikogeriatrikoko fisioterapeuta Iosu Alustiza Navaroren azalpenak dira horiek. Sentsazio horiek eskala batean jasoak gelditzeko lanean hasi zen, “bi urte eta erdiko bidean doa. Eta ordu pila bat sartuta tartean”.

Lehen urratsa Interneten kontsulta egitea izan zen. “Baina behar genuenerako eskala egokirik ez zegoen, dugun gaixo motagatik”. Bere buruari galdezka hasi zitzaion: “zer behar dugu? Zer baloratzen dugu? Zer datu behar ditugu? Pentsatzen hasita, eta nahi gabe, lortu nuen eskala bat diseinatzea, sortzea”. Alusti Testa, edo Test de Alusti, izena eman zion.

Sortzaileak halaxe definitu du: “Pertsonen gaitasun fisiko eta funtzionala baloratzeko balio duen eskala bat da. Eskala horren bidez ikusten dugu pertsona baten egoera zein den, zenbat hobetu duen, zein gabezia dituen eta hori guztia”. Gimnasio lanarekin pertsonak izaten zuten hobekuntza non-bait jasoak gelditzen da orain eta informazio honek senideei edo lankideei gaixoaren garapenaren berri emateko balio du; “gaixoa zenbat hobetzen den erakusteko. Edo zein den bere egoera eta zein arlotan hobetu den gehiago edo gutxiago... ikusteko”. Eta, jakina, “beste profesionalek berdina egiteko aukera izan dezaten”.

Probaldia

Eskala sortu eta klinikako gaixoei eskala pasatzen hasi zitzaion Alustiza. Makina bat alditan probatu zuen eskala. 350 gaixoren datuak jasoak ditu. Klinikara sartzeko eta alta eman bitartean eguneroko haiekin izaten da lane-


an. Eskalako fitxa indibiduala osatzerakoan honakoak izaten ditu kontuan: “artikulazioen eta muskuluen egoerak, gorputz-enborra sostengu gabe eserita nola gelditzen den, etzanda egotetik esertzeranolako mugimendua egiten den, aulki batetik nola zutitzen den, zutik nola mantentzen den (laguntza asko edo gutxi), nola ibiltzen den (laguntza asko, gutxi, zer laguntza mota), zer distantzia ibiltzen den (ez da berdina pertsona bat 10 metro edo 150 ibiltzea. Autonomia, independentzia maila desberdina da). Horiek guztiak garrantzitsuak dira”.

Altsasuklinikaz aparte, Alusti Testa bai Donostian, eta baita Iruñeko miseriakordia-etxean ere probatu da. Fisioterapeutak esan digunez, “pertsonen egoera fisiko desberdinetan aztertzen ari gara. Hemengo profila hirugarren adinekoa da, baina, batez ere, menpekotasun fisikoa dutenak. Baina, adibidez, eguberrietan Donostian hirugarren adineko pertsonekin egon nintzen, baina matxaka deitzen diedanekin. Hau da, atletismoko veteranoen mailako lasterketetan parte hartzen dute. 70 urte dauzkate eta maratoniak korritzen dituzte. Hemen baita, Altsasuk kiroldegiko mantentze-gimnasiako taldeekin ere pasa dugu eskala. Datu horiek guztiak jaso, aztertu, konparatu...” Datu basea sortua du eta bere lankideek kontsultatu dezakete. “Horrekin kongresuetan beste lan batzuk aurkezteko aukera dago. Lan egiteko aukera handia dago”.

Balioztatze, talde lana

Alustizak dioenez, “azkenean pertsona guziok gure mugak ditugu. Ni nire lanean jarduten naiz, baina eskala batekin eta balioztatze prozesu batean sartzen bazara laguntza, kontaktuak, estatistika behar dira, eta beste zentroetan ikerketak egin behar dira”. Horregatik, ezagunen atean jotzen hasi zen eta eskuartean zuen egitasmoren berri eman zien. “Horren ondorioz jende askoren laguntza jaso dut”.

Donostiako Zorroaga zaharren egoitzako Juan Jose Calvo Agirre geriatrarekin batera, elkarlanean ari da fisioterapeuta: “bizi guz-



Alustiza eta Calvo Santanderren egindako aurkezpenean. UTZITAKOIA

tia geriatra moduan aritu da. Lan pila egindakoa da. Sekulako izena du. Kontaku ugari ditu”. Eskala balioztatze tandem sortu dute Alustizak eta Calvo. “Ofizialtzeko, estandarizatzeko erakutsi behar da eskala hori egokia dela. Behin egokia, estandar delako erakutsi ondoren, edozeinek erabili dezake”. Horretarako, 350 pazienteen datuak estatistikoki aztertzen ari da BioDonostia. Alusti Testa “egokia, fidagarria dela ikusteko, bere emaitzak gaur egun erabiltzen diren beste eskalen emaitzekin alderatzen ari gara baita ere”.

Fisioterapeutak esan digunez, eskala doitu da: “geratzen zitzaiguna da, baloratzen genituen mendekotasuna zutenak, autonomia maila altua zutenak ere baloratzen genituen, baina ez ginen gai autonomia altua zuten horien artean desberdintasuna lortzeko. Guretako denak autonomoak ziren. Autonomo horien artean bereizketa egin nahi genuen, denak egoera desberdina dutelako. Eskalari bi puntu gehiago gehitu genizkion: matxaka denak, puntuazio maximoa ematen digu; oso-oso ongi dagoena, oso ongi, baina ez da matxaka, puntuazio baxuxeagoa; ongi dagoen beste bat baina bere mugak dituen, beste puntuazio bat. Horrekin lortzen dugu egoera txarrenetik

egoera onenera denak bereiztea”.

Balioztatze prozesuaren ardurara JJ Calvoren izan da. “Lehenengo, erregistro batean erregistro moduko bat egiten dugu. Hau gurea da esanez bezala, inork ez kopiatzeko. Behin ikerketa horiek aurkeztuta, zientzia aldizkari

batean artikulua bat aurkeztu da”. Alustizak gaineratu duenez, “datuekin eta ikerketarekin benetan eskala nolako den eta zer emaitza lortu dituzun erakusten duzunean, erakundeak esaten du: “bai, bai, hau ofizialki onartuta dago”.

Kongresuetan aurkezpenak

Alustizak dioenez, “egunero nabili gaixo hauekin, eskala hau pasatzen eta badakit informazio asko ematen didala, azkar pasatzeko dela eta oso egokia dela. Jendeari erakusten diozunean ikusten du ongi dagoela”. Horregatik, joan den urtean Sevillako kongresu batean eta aurten Santanderren aurkeztu dute-nean, Alusti Testak profesionalen artean harrera “ona” izan du. “Hala ere, guk esaten duguna, oraindik balioztatze prozesuan gaude. Ea etorkizunean ikerketa handi-handi bat egin dezakegun. Behin eskala balioztatuta”. Alusti Testa hainbat kongresuetan aurkeztuko dute: otsailean Bilbon, martxoan Zaragozan, maiatzean Gasteizen eta garagartzaroan Coruñan. Bestalde, “laborategiak testarekin ere interesa dute. Haiek erakutsi nahi dute haien produktuak, farmakak, onak direla. Beraien helburuak

betetzen dituzte. Horretarako ere eskalak behar dituzte”. Kontuan hartuta jendarteagero eta zaharragoa dela, Alusti Testak erabilera handia izanzen duela aipatu diogu eta helburua hori dela gaitzitu digu fisioterapeutak: “guretako poz handiena eskala hau erabilgarria izan dadila beste profesional guztiendako. Azkenean, hirugarren adineko pertsonetako hobeia izanen da. Balorazio hobeia izanendutelako. Klinikagisa, hortik klinikaren izena entzutea guretako pozgarria da”. Lan handia izan da eskala sortzea, baina bidean “sari txikiak” jaso ditu Alustizak: “honiesker jendeasko ezagutzeko aukera izaten ari naiz. Hortik mugitzea. Zenbat eta jende gehiago ezagutu, orduan eta gehiago ezagutzen duzu. Beti ikasten da. Laguntzen dute. Laguntzen duzu. Beste estimulu bat”.

Urbanizatutako lur-sailen salmenta

Arbizuko Udaleko osoko bilkurak, 2017ko otsailaren 2an egindako bilkuran, onartu zuen enkante publiko eta gutunazal itxien bidez honako Partzela eta loteen salmenta gauzatzea, guztiak Arbizuko 1. Poligonokoak direlarik:

Lote - Partzelak - UE	m ² Partz.
1. LOTEA - 441tik 446ra - UE-4	407,10
2. LOTEA - 469 - UE-9	201,40
3. LOTEA - 1102 - UE-13	216,90
4. LOTEA - 1106 - UE-13	274,35
5. LOTEA - 1140 eta 1141 - UE-14	241,60
6. LOTEA - 1156 - UE-16	348,60
7. LOTEA - 1165 - UE-16	364,10



Arbizuko Udala
948460017 - Faxe 948461021
idazkaritza@arbizu.eus
www.arbizu.eus

Baldintzen agiria Udalaren bulegoetan eta Nafarroako Gobernuako kontratuz atarian dago nahi duenaren eskura:

<https://hacienda.navarra.es/sicportal/mtoSubastas.aspx?Cod=1702031121142807236>

Arbizun, 2017ko otsailaren 3an

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

Santa Agedan

Larunbatean
ogitarteko
goxo-goxoak
barran!!!

948 467 876 • Altsasu

Ogiaren artisauek

PORTUKO okindegia

goza dezazuela
Santa Agedan

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988
ALTSASU: Denda: 948 563 822 • Lantegia: 948 467 153

» Altsasu

Txotx eta txotx artean sinadurak biltzen

Altsasuko Gure Esku Dago taldeko kideek herritarrei taldea lanean dagoela eta garagarriaren 18an herri galdeketa eginen dela gogorarazi nahi diete. Horregatik, hilerro jarduera bat antolatzeko asmoa dute. Otsaileko larunbatean antolatuko zuten eta Foru plazatik pasa ziren altsasuar guztiei txotx egiteko aukera eskaini zieten. Sagardoa edatera eskaintzarekin batera, Altsasuko Gure Esku Dagok herri galdeketa babesteko sinadurak jaso

zituzten, “dexente” esan digute-nez.

Otsaila bukaera bitartean ahalik eta sinadura gehien bildu nahi dituzte. Galdeketa aurrera egin ahal izateko Altsasuko erroldaren %10 jaso behar dute gutxienez. Bere sinadura eman nahi duten altsasuarrek Gure Esku Dago taldeko kideekin hitz egin behar dute. Bestela, Facebook sare sozialeko Gure Esku Altsasu profilaren bitartez harremanetan jar daitezke.



Altsasuko Gure Esku Dagoko kideek kupela ireki zuten unean.

»

Hitzordu berria Madrilgo auzitegian



Ostiralero bezala, gaur ere udaletxe aurrean elkarretaratzea egingo da.

Atxiloketetatik hiru hilabete pasa direla gogorarazteko ekimenak iragarri dituzte astelehenerako eta astearterako

Oraingoan bi adin txikikoak izanen dira Madrilera joan beharko dutenak. Ferietako liskarragatik auzipetutako biek adin txikikoen epaitegian dute hitzordua astelehenean. Haiei eta euren senideei babesa

emateko autobusa abiatuko da Altsasutik. Herrian, bestalde, auziari buruzko informazio gunea jarriko da udaletxe parean. Herri-asanbladako kideak 10 orduz ariko dira informazioa ematen, 10:00etatik 20:00etara. Egitekoa despeditzean batzarrera deitu dute, Madrilen gertatutakoaren berri emateko.

Guardia Civil atxiloketakegin zituela hiru hilabete beteko dira asteartean. Eta ordutik hiru gazte altsasuar Soto del Realgo espetxean preso dituzte. Haiei, eta auzipetutakoei, elkartasuna adierazteko herri-asanbladak Iortia kultur gune parean 20:00etan elkartzera deitu du. Elkartzen diren guztiak Zumalakarregi plaza, kultur gune plaza eta Foru plaza artean banatuko dira. Herri-asanbladaren asmoa herri eta etxe guztietako argiak 20:00etatik 20:15era itzaltzea litzateke, “iluntasunean elkartasunaren argia erakusteko”.

Material salmenta

Kintoek Zortzikoa dantzatzan duten bitartean, Gur Etxea eraikinean, poloak, kamixetak, banderolak eta zapiak salgai izanen dira.

Elkartasun argazkia eta zortzikoa

Ferietako liskarren ondorioz hiru altsasuar Soto del Real espetxean preso daude. “Ezinen dute festaz gozatu bere senide eta lagunekin batera” gaztigatu dute herri-asanbladatik. Horregatik, biharko elkartasuna adierazteko bi deialdi egin dituzte. 12:45ean jarri dute hitzordua Iortia kultur gune parean. Elkartasun argazki erraldoia egin nahi dute lehenik eta, ondoren, zortzikoa dantzatu. Herri-asanbladatik kinto ospakizunei elkartasun kutsua emateko zapia janzteko deialdia luzatu dute. Era berean, herri-asanbladak polizia-muntaia eta “Altsasuko zirku handia” salatzeko martxoaren 4an, hiri-inautarian, zirkuz mozorrotzeko gonbitea egin du.

»

Parlamentuan terrorismo delitua arautzen duen artikulua aldatzeko eskaera

Nafarroako Gobernuari eusten dion lauhoak Zigor Kodeko 573. artikulua “berehala” aldatzeko mozioa aurkeztu du. Artikulu horrekin terrorismo delituagatik auzipetu dituzte Altsasuko 11k

Geroa Baik, EH Bilduk, Podemos-Ahal Duguk eta Izquierda-Ezkerak Nafarroako Parlamentuan mozioa erregistratu zuten asteartean. Zigor Kodeko zazpigarren kapituluak, zehazki 573. artikulua moldatzeko eskaera Nafarroako legebiltzarrean onartu ondoren, eskaera Madrilera eramanen dute.

Terrorismo kalifikazioa dela bi urte aldatu zuten PPK eta PSOEk. Mozioak hala dio: “Delitu bat egon daiteke terroristatzat hartzen dena, nahiz talde armatu baten babespean ez izan. Herritarren artean beldurra eragiteko eta bake publikoaren aurkako edozein ekimeni leporatzen ahal zaio terrorismo delitua, aldaketa hori txertatu zutenetik”. Oraindik ez dago jurisprudentziarik konstituzionalki ez eta Auzitegi Gorenekoan ere haren mugak

zehazten dituen.

Lauhoak aldaketa kritikatzean gogora ekarri dute Nazio Batuen Erakundeak eta nazioarteko hainbat taldek aldaketa kritikatu dutela, batetik, eskubide zibilak eta askatasun demokratikoak ozto-

patzen dituelako eta, bestetik, terrorismoa ez diren jarrera eta jokaerak kriminalizatu daitezkeela dio organismo horrek eta adierazpen askatasuna proportzionaltasunik gabe haustearen eragiten ahal dutelako.



Laura Perez, Adolfo Araiz, Marisa Simon eta Koldo Martinez. @GEROABAI

»

Ferietako liskarra bizpahiru hilabete barru epai liteke

Hala jakinarazi du Efe agentziak Espainiako Auzitegi Nazionalean kontsulta egin ondoren. Fernando Grande-Marlaska buru izanen duen epaimahaiak epaituko ditu bederatzita altsasuarak. Instrukzio epaile-



ak terrorismo delituagatik epaitzeko eskatu zuen. Hala ere, epaiketarako data zehaztu aurretik bai akusazioak bai defentsak euren zigor edo absoluzio eskaerak aurkeztu beharko dituzte. Gazteen defentsak jarritako hainbat helegite ebatzi gabe daude oraindik. Horien artean auzipetutako hiru kartzelan mantentzearen aurka jarritakoa. Izapide horiek aintzat hartuta, agentziak zabaldu du epaiketa bizpahiru hilabetetan eginen dela. Betiere auziperatutakoren bat espetxean baldin badago; izan ere, halakoetan auziek lehen-tasuna izan ohi dute.

»

Bikote ohitik urruntzeko agindua hausteagatik atxilotuta

Larrialdi zerbitzuan deia jaso zuten ostegunean: Altsasuko emakume batek poliziak bere etxera joatea eskatu zuen, bere bikote ohia kanpoko aldetik leihoak jotzen zegoelako eta oso asaldatuta zegoelako. Foruzaingoak jakinarazi duenez, patruila etxera iritsi zenean gizon bat etxeko leihoak indarrez jotzen eta irainka opatu zuten. Gizona identifikatu eta bikote ohiari hurbiltzeko Iruñeko 1. instrukzioko epaitegiak emandako debeku errekerimendua zuela ikusi zuten. Gizona atxilotu zuten, urruntze neurriak hauste delitua egotzita. Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Iruñeko 1. Epaitegiaren esku gelditu da auzia.

112

Telefono horretara hotsegin daitezke sexu indarkeria kasutan.

» Etxarri Aranatz

Torturaren salaketa

Nafarroako Amnistiaren aldeko eta Errepresioaren kontrako Mugimenduak (AEM) tortura salatzen hitzaldia eta kontzentrazioa antolatu ditu biharko. 11:00etan hasita, kultur etxean tortura hipzide izanen dute Nerea Zabalak (Josu Zabala, Basajauen, senidea), psikologo batek eta Nerea Olaziregik (1997an Guardia Civil atxilotua). Hitzaldia ondoren, tortura salatuko duen kontzentrazioa deitu dute, 13:00etan, plazan.

Euskal Herriko torturaren kontrako eguna astelehenean izanen da, poliziaren torturen ondoren Joxe Arregi Madrilgo ospitale batean hil zela 36 urte betetzen direnean. AEMk antolatutako ekimenen bidez egunarekin bat egin nahi du. Mugimenduko kideek gaztigatu dutenez, “militar-okupazioa eta tortura historikoki elkarren eskutik joan diren bi errealitate gordin dira”. Tortura “praktika sistematiko bat” dela eta “helburu politikoekin erabili” dela nabarmendu dute.

Azken 50 urteetan Euskal Herrian 10.000 tortura kasu baino gehiago dokumentatu direla gaztigatu dute. AEMkoendako “larriena torturaren praktikak izan duen babesa eta zigorgabetasuna dira. Tortura delitu bada ere, estatuak torturatzaileak babestu eta saritu ditu, eta bere praktika legitimatu du”. Azkenik, gaineratu dute “torturatzaileak kalean diren bitartean hainbat pertsona preso segitzen dute torturapean lortutako informazioak baliozko frogatzat emanda”.

SAKANA

Trenbidean hirugarren erraila jartzea eta trenbidea bikoiztea, aztergai



Manu Aierdi lehendakariordea eta Iñigo de la Serna Espainiako sustapen ministroa batzartu zireneko astean, ilbeltzaren 31n. Hizpide izan zituzten artean Zaragoza eta Euskal Y grekoaren arteko Nafarroan barnako trenbide korridorea izan zen. Ministroak jakinarazi duenez, ahalik eta azkarren ikerketa egiteko eskatu du: egun dagoen tren azpiegiturak eskaintzen dituen aukerak aztertuta, inbertsio txikien bidez, bidaiari denborak hobetzeko eta bidaiari eta merkantzien premiak asetzeko.

Iruñea eta Euskal Y-aren arteko loturaren ikerketa horretaz aparte, nazioarteko trenbide zabalera jartzeko aukera ere aztertuko dute, hirugarren erraila jarrita, merkantziak Gipuzkoa eta Lapurdi arteko mugatik harago trena aldatu gabe eraman ahal izateko. Aldi berean, Iruñea eta Altsasu arteko gaur egungo plataforman trenbidea bikoizteko aukera dagoen aztertuko da. Altsasu eta Euskal Y-aren artean bi trenbide daude. Aierdik nazioarteko estandarrik dituen bidaiariendako eta merkantziendako trenbidea defendatu du. Diario de Noticias egunkariari egingo adierazpenetan lehendakariordeak jakinarazi du Nafarroa eta Euskal Y delakoa lotzeko Euskal Autonomia Erkidegoak, Nafarroak eta Espainiak 2011n sinatutako elkarlan protokoloa oso geldi dagoela. Trenbide plataforma berria aurreikusten zen orduan. Aierdik esanduenetaz, "zati horretan behin betiko konponbideak tramitazio motela eta luzea eskatzen du. Horregatik, ikerketa azkarrera jo dugu, egungo azpiegiturak zer aukera eskaintzen dizkigun jakiteko". Plataforma berria egin gabe, trenbidea bikoizteak tren pasamaitasun eta gaitasun handiagoa ekarriko lukeela gaineratu du Aierdik.



Ibarra zeharkatzen duen argindar linea hobetuko dute

Itsaso-Orkoien 2, zirkuitu sinpleko 220 KV-eko argindar linearen garraio gaitasuna handitzeko proiektuaren kontsulta epea marxtan dago. Hala jakinarazi zien Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioiko Kalitate eta Ingurumen Ebaluazio eta Natura Ingurumeko Zuzendaritza Nagusiak Sakanako hainbat udalei ilbeltzaren 25ean. Kontsulta epeko lehen tramite hori, ingurumen dokumentua, proiektuak ukitutako erakunde eta pertsonen bidali die.

Oskiatik Etxegaratera Sakana zeharkatzen duen argindar linea da Red Electrica Españolak indar-

tu nahi duena. Proiektuan jasotzen denez, ez da ez linearen ibilbidea aldatuko ezta argindar dorreen kokapena aldatuko ere. Hala ere, Sakanan 18 dorre altuera gehiago emanen nahi zaiela azaltzen da. Horrek dorre jakin batzuen inguruan zuhaitzak moztea ekarriko duela ere gaineratzen du.

Sustrai Erakuntza fundazioko Martin Zelaiak esan digunez, "hau ez da linea berria. Bestea, Deikaztelu-Itsaso linea egiteko lehen pausoa da. Planifikazioan hala dio, lehenik dagoenari potentzia handitu behar zaiola eta gero bestea egin behar dela". Azken



Argi-indar linea Urritzolatik.

horrekin dute kezka fundazioan eta, horregatik, Zelaiak "adi egoteko" deia egin du. Bestetik, gonbidapena luzatu du fundazioko-

ak: "proiektu honek herriren batean inpaktu handia sortzen duela uste duten udalek gurekin harremanetan jarri daitezke".

Altuera handituko duten dorreak		
Herria	Kopurua	Zenbat metro altuago
Altsasu	2	4
Urdiain	3	4
Iturmendi	1	4
Bakaiku	1	4
Etxarri	3	4 (2) / 7 (1)
Arbizu	1	6
Arakil	9	4 (6) / 6 (1) / 7 (2)
Guztira		20

Mozketak		
Herria	Zuhaitz mota	Azalera m2
Altsasu	Pagoa	3.727
Urdiain	Haritza / Pagoa	532
Bakaiku	Sahatsa	99
Etxarri	Pinua	315
Arbizu	Fruta-arbolak	72
Uhartea	Haritza / Larra / Lizar	314
Guztira		5.059

SAKANA

Udalbiltzaren gogoeta prozesua abiatzear

Heldu den astean abiatuko du Udalbiltza Partzuergoak *Udalbiltzan Bagabiltza* gogoeta prozesua, "egungo egoera politikora egokitze"ko. Euskal Herriko hautetsiekin eta herritarrekin bilerak egingen dira. Sakanako hautetsiak Etxarri Arantzen, asteartean, 19:00etan elkartuko ditu Udalbiltzak. Baina gogoeta prozesu horren atariko, larunbatean, Udalbiltzako garai bateko eta egungo arduradun eta hautetsiak Arbizu elkartu ziren. Erakundearen sorreratik hasita gaur arteko ibilbidea erreparatu zuten eta erakunde publikoaren diagnostiaz ere aritu ziren. Udalbiltzako arduradun historikoen artean, besteak beste, izan ziren: Loren Arkotxa (Ondarru) Udalbiltzako lehen lehendakaria eta horregatik espetxeratua, Xabier Alegria (Lezo), Pablo Gorostiaga (Laudio), Expe Iriarte (Iruñea). Egungo lehendakari Luis Intxauspe han izan zen, baita Arbizuko eta Etxarri Aranazko zinegotzi diren Miren Mendinu eta eta Aritz Ikobaltzeta ere.



Zazpi langabetu gehiago enplegu bulegoan izena emanda

Nafar Lansarek jakinarazi duenez, ilbeltza akaberan urte hasieran baino zazpi langabe gehiago zeuden izena emanda Altsasuko enplegu



bulegoan. %0,7ko igoera. Guztira 1.005. Duela urte batekin alderatuta langabeziak %10,35 egin du behera. Hala ere, Sakanako datua osatzeko Iruñeko zabalguneko irurtzundarren eta arakildarren datua gaineratu beharko dira. Kontratuak dagokienez, Altsasuko bulegoaren bidez ilbeltzean 699 kontratu sinatu ziren, haietatik 42 besterik ez ziren behin betikoak izan.

Olatzagutia

Hondakin bilketako larrialdi gunea suko-hautsak errea

Olatziarrek Erburua kiroldegia- ren ondoan dagoen hondakin bilketarako larrialdi gunea erretatu opatu zuten atzo. Suhiltzaileek itzali zuten sua, antza, oraindik bero zeuden suko-hautsak eragin zuena. Negu partean halakoak gehiagotan gertatzen direla argitu dute Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzutik. Horregatik, suko-hautsekin tentuz ibil-

tzeko deia luzatu dute. Olatzagutiko larrialdi gunean lau edukiontzi eta beste txiki bat zeuden. Guztiz kixkalita gelditu dira. Horien balioa 700 euro ingurukoa da. Mank-eko teknikariek larrialdi gunearen egurrezko egituraren egoera aztertuko dute gaur. Baita inguruak txukundu ere. Dagoeneko, larrialdi gune ondoan edukiontzi berriak jarri dituzte.



839 etxebizitzari zerbitzua ematen die larrialdi guneak. UTZITAKOAK

Aldatzea jarrera bat da. Irabaztea gogobetetzea.



Hyundai Tucson Berria. Spainian 2016ko kotxerik onena.

Aldaketaren apustua egin eta irabazi dugu. Sari handi bat lortu dugu: Spainian 2016ko kotxerik onena izatea. Kotxe handi bati saria baina batez ere jarrera bati. Mila esker Hyundai Tucson kotxean apostu ezberdin bat ikusi duzuenoi.

Aldaketaren poterea nabaritu www.hyundai.es-en

NEW THINKING. NEW POSSIBILITIES.

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A.
ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • www.autsanmiguel.com

Gama Hyundai Tucson: Isuriak CO₂(gr/km): 119-175. Kontsumo mixtoa (l/100km): 4,6-7,5.

40 tanatorios

IRACHE

aniversario

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

www.tanatoriosirache.es



Vicente Uranga Azkarate

I. urteurrena



Otsailaren 12an, bere aldeko meza ospatuko da Lakuntzako elizan, goizeko 11:00etan. Joan zara, baina gure bihotzean zaitugu. Maite zaitugu.

Zure seme-alabak eta bilobak



Primitiva Galan Cantero



Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin gelditzen da. Dastatu eguzkiaren argia zauden lekutik. Maite zaitugu.

Zure bilobak eta birbilobak



Axio Aranburu Zurutuza

Altsasuko 2003ko kintoak



Josefa Perkaz Beraza

“tia Pepi”

Zure eskuetan labaindutako hariaren isiltasunaz utzi gaituzu. Beti gure oroimenean.

Zure ilobak

Julio Cesar Sarango Ordoñez

2017ko kinto guztiei eta otsailaren 6an, Julio Cesarren omenaldia egitea ahalbideratu zuten guztiei gure esker ona azaldu nahi diegu. Eskerrik asko lagun eta kide guztiei.

Oso eskertuak gaude. Mila mila esker

Bere guraso eta senideak

Jainkoak bedeinka zaitzate.



Martina Ijorra Larraza

Joan zinen lurretik baina ez gure gogotik.

Itxekuek

Arbizu, 2017ko otsaila

Oroigarriak

egiten ditugu

gk KOMUNIKAZIOA

948 564 275
Foru plaza, 23-1 Altsasu
gk@gkomunikazioa.eus



Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu.

Bidali mezua eskelak@guaixe.eus-era edo hots egin 948 564 275 telefonora

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

3 LANA/NEGOZIOAK

5 IBILGAILUAK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

4 DENETARIK

6 HARREMANAK

8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**

Astekarian: Saldu/erosi, errentan eman/hartu, lan eskaintzak 8€ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75

Posta elektronikoa: iragarki@guaixe.eus

LANA | NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZAK

Esperientziadun harakina behar da Gipuzkoan. Lan egiteko gogoarekin. Eskatzen da: arretatsua, garbia eta arduratsua izatea. Lanaldi osoa. Bidali CV harategiaa@gmail.com

Uharte Arakilen Garbiñe Azurmendiren botikarako farmaziari bat behar da jornada osorako.

Kontratu mugagabea. Interesatuek deitu telefono honetara 675 551 510.

Landa hoteleko langilea. Jatetxe eta harrerarako neska bat behar dugu larunbata eta igandetarako (ez finkoak). Euskalduna eta ingelera maila ona beharrezkoak. Hoteleko harreraren esperientzia izatea ez da beharrezkoa. Arratsaldeko lanaldia betetzeko beharko genuke baina malgutasuna eskatzen dugu. Urrutikoa bazara, lan egunetan hotelean gelditzeko

aukera ere eskainiko da. Interesatuta bazaude, bidali zure cva posta helbide honetara: naiara@hotellatzea.com

IKASTAROA

Album ilustratu bat sortzeko helbideko lantegia. Otsailak 11, larunbata, 10:30 – 13:30 Arbizuko liburategian. Izen-ematea: Arbizuko liburategian otsailaren 3ra arte, 948 017 777 edo liburutegi@arbizu.eus

SALDU / EROSI

SALDU

Border Collie txakurkumeak saltzen dira, aita eta ama ardiekin lanean dabil-tza. Tel 646 843 579.

OPARITUTAKOAK

Intxaurrendoa, gaztainondoa eta haritzak oparitzen ditut, konpostetik

jaiotakoak. Tel 656 711 356.

OHARRAK

Nafarroako haur kantari jaialdia 2017. Izen-ematea zabalik dago 6-16 urte bitarteko. Nafarroako haur guztiek har dezakete parte; bakarlari, bikote zein taldetan. Izena emateko amadominguez@tafallaikaastola.org. Jaialdia martxoak 18, Zangozan; 19an, Lakuntzan; 25ean Lesakan eta apirilaren 1ean, Burlatan.

Etxarri Aranazko irakurketa taldea. Martxoaren 9an, ostegun, 19:00etan Etxarriko liburategian elkartzeko dira Kirmen Uriberen Elkarrekin esnatzeko liburuaz hizketatzeko.

Enplegarritasuna hobetzeko biterkaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresarien Elkarteak langabeei eta lan bila dabilzatenadako duen aholku-

laritza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezate.

Mintzake proiektua.

Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zugabe-ezin>

GoiEner Iruñean. Landarek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-

Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektu garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardura sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

OPATUTAKOAK / GALDUTAKOAK

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoko Altsasun galdutako gauza hauek dituzte: diruzorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta mikilak: 19. Belatitakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

JAIOTZAK

• **Alex Garcia Verde,** otsailaren 1ean Altsasun.

HERIOTZAK

• **Silvina Esteban Acebes,** otsailaren 2an Altsasun.
• **Luis Rueda Rodriguez,** otsailaren 3an Altsasun.
• **Antonia Caballero Triguero,** otsailaren 3an Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

ARETO FUTBOLA

URREZKO INTSIGNIA ARREGIRENDAKO: Entrenatzaileen Komiteak entrenatzaileen eguna ospatu zuen ostiralean. Sari emate-

an, tartean, Magna Gurpea Xotako entrenatzaile Imanol Arregi irurtzundarrak urrezko intsignia jaso zuen.

kirola >>

Eskia / Mendia / Elur Erraketak

Sakanako elurraren eguna antolatu dute

Urbasan izango da, elurra dagoenean Mankomunitateak zehaztuko duen egunean. Ipar eskia, elur-erraketa ibilbideak, musherren erakustaldia elurbusa eta beste izango dira

Elurra egiten duenean Urbasara joateko gonbitea egin du Sakanako Mankomunitateak, Sakanako Elurraren Eguna antolatuko baitu. Honako taldeen laguntza izango du Mank-ek: Urbasa-Andia Ipar Eski Lagunak, Altsasuko Mendi-goizaleak, Navarmushing Txakur Lera Kluba, Sakanako Garapen Agentzia eta Nafarroako Gobernua.

Ipar eskia, elur-erraketak, musherrak, argazkiak, pase-oak, trineoak eta elurbusa

Orain arte Mank-ek urtero ipar eski zeharkaldia antolatzen zuen, Andiatik Urbasara. Bere aldetik, Urbasa-Andia Ipar Eski Lagunak taldeko kideek hainbat urte daramatzate Otxoportilloko bidea makinekin zapaltzen, bertatik ipar eskian aritzeko. Aurreko urtean Elurbusa antolatu zuen Mank-ek, elurrarekin Urbasan aparkatzeko arazoa baitzegoen eta jendeari erraztasunak emateko. "Aurten, beste pausu bat eman dugu eta eskaintza zabaldu dugu" azaldu zuen Gerrikagoitiak.

Horrela, elurra egiten duenean zehaztuko den egun batean Sakanako Elurraren Eguna antolatuko dute. Eskiatzeaz gain, elur-erraketekin ibilbideak eta oinezko ibilbideak egiteko aukera egonen da eta musher erakustaldia egingo da, lera txakurrekin. Eta, jakina, nor bere kabuz joan ahalko da argazkiak ateratzera, paseatzera, leran ibiltzera edo dena delakora. Elurbusak igo eta jaitsi egingo dituegunen izena ematen dutenak, bizpahiru bidaia egingo baititu.

Eskiatzeko prestatutako pistak errespetatzeko deia

Urbasa-Andia Ipar Eski Lagunak taldeko Gorka Garciak azaldu zenez, 7 urte daramatzate Otxoportillon ipar eskia egitea ahalbidetuz. "2010ean eman ziguten baimena. Urbasa Andia Natur Parketik konfirmatu ziguten elu-

Helburuak

Sakanako Elurraren Egunarekin aisia eta kirola sustatu nahi dira, jarduera alternatibo batekin. "Gure naturguneak bulkatu eta errespetatu nahi ditugu eta elurra dagoenean ere gure eskualdea turistikoki bulkatu nahi dugu, zerbitzu erakargarriak eskainiz, sakandarrendako eta bisitariendako. Bestetik, elurra egiten duenean Urbasan aparkatzeko arazoa ekidin nahi dugu" azaldu zuen Gerrikagoitiak.

Urbasa, ipar eskirako paradisia



Aurkezpenean Amaia Gerrikagoitia Mank-eko kirol teknikaria, Patxi Saez de Lazkano Nafarroako Gobernuko turismo teknikaria, Gorka Garcia Urbasa Andia Ipar Eski Lagunak taldeko kidea, Paki Urbitarte Sakana Garapen Agentziako turismo teknikaria, Navarmushing Txakur Lera Klubeko Jorge Ibañez eta Bidelagun turismo elkarte Fernando Etxauri eta Amaia Erdozia izan ziren. Gorka Garciak Urbasa ipar eskirako "paradisia" dela goraipatu zuen. "Ipar eskirako aparteko orografia du Urbasak. Ipar eskia probatzera animatzen zaituztegu, hitze-kin ezin baita azaldu zeinen zoragarria den. Gorputza osoa lantzen da eta kirol osoa da"

rra edo izotza egiten duenean Otxoportilloko errepidea trafikari itxita geratzen dela. Ordutik, Nafarroako Gobernuaren baimena eskuetan, nahi duen orok eskiatu ahal izateko pista prestatzen dugu" azaldu zuen Garciak.

Tamalez, ibilgailu edo todoterreno batzuk bertatik ez zirkulatzeko debekua ez dute errespetatzen. "Batziek ez dute debekua errespetatzen, pista sartzen dira eta guk egindakolana zaputzen dute, modu oso txarretan, gainera, ondoren ezin baita bertatik eskiatu edo musherrik sartu. Horregatik jendeari eskatzen diogu seinaleak errespetatu ditzala, elurra dagoenean Otxoportillotik ezin dela autoz ibili. Eta norbaitek ibilgailuren bat ikusten badu, 112ra deitu dezala eta todoterrenoaren arrastoei argazkiak atera ditzala, hori da gomendioa" nabarmendu zuten. Halaber, mugariak errespetatzeko deialdia egin zuten, "ibilbideak, bidegurutzak eta beste markatzen dutelako, elurrarekin are garrantzitsuago".

Eski ibilbideak

Gorka Garciak aipatu zenez, Otxoportillotik Eskizako saroirra bitarteko 5 km-ko pista prestatzen dute makinekin. "Ipar eskian eta skatingean aritzeko primerako pista da" azpimarratu zuen. Pista edo senda nagusi horri lotuta, bi ibilbide zirkular prestatu dituzte, gune batean bat egiten dutenak. "Zortzi bat osatzen dute, 8 deitzen diogu. Senda nagusitik doaz, baina paraleloki ateratzen dira eta ondoren sendarekin bat egiten dute edo, bestela, bigarren eraztunarekin, Eskizako sendako perimetroan. Horrela, uneo senda nagusitik ibili nahi dutenek horrela egin dezakete, eta atera nahi dutenek, aukera dute. Gainera, hainbat puntutan

senda nagusira itzuli daiteke. Lehen eraztunaren ibilbidea 11 km-koa da, joan eta etorri, eta bigarrenarena 15 km-koa" azaldu zuen. Garciak gaineratu zuen ipar eskian esperientzia gehiago dutenek hasi berriak direnei beharrezko azalpen guztiak emango dizkietela.

Elur-erraketa ibilbideak

Bestalde, elur-erraketekin egiteko ibilbidea prestatu dute. Ibilbide honek Otxoportilloko senda nagusia puntu batean gurutzatzen du. Erraketekin edozein tokitik ibili daiteke, baina ibilbide zehatz batzuk markatu dituzte, askotan jendeak ez dakielako nondik ibili. "Lehen ibilbidea 3 km eta erdikoa da, joan etorrian, bigarrenena 7 km-koa, joan etorrian eta hirugarrena 11 km-koa, joan eta etorri. Martxa hauetan parte hartu nahi dutenek Sakanako Mendi-goizaleak taldeko kideez lagunduta egin ahalko dute bidea. Eta norbaitek monitore bat kontratatu nahi badu, erraketekin ibiltzen ikasteko, Miruako Dani prest dago.

Bestalde, Navarmushing Txakur Lera Klubeko Jorge Ibañezek aipatu zuen Urbasa-Andia natur parkea dela, zortea dugula gertu dugulako eta elurra egiten duenean bertatik ibiltzea gozamen dela.

Turismorako oso interesgarria

Sakana Garapen Agentziako turismo teknikari Paki Urbitartek positibotzat jo zuen Sakanako Elurraren Eguna. "Ekimen interesgarria da, Sakanara datozen turistendako eta sakandarrendako ere zerbitzu osagarri bateskaintzen duelako. Alojamentu eta landetxeendako ere eskaintza osagarria da" nabarmendu zuen. Iritzi berekoak ziren Bidelagun turismo elkarte Fernando Etxauri eta

Sakanako Elurraren Egunerako aurre izena ematea zabalik

Interesatuek Sakanako Mankomunitatera hots egin behar dute (948 464 866 edo kirolak@sakanamank.eu) eta konpromisorik gabeko aurre izena eman. Mank-en datuak hartuko dituzte eta eguna zehazten denean pertsona hauei informazioa helaraziko zaie eta orduan egingo da behin betiko izena ematea. "Normalean astearte-asteazkerako jakingo dugu igande horretan elurra egoki egongo den ala ez. Eta orduan abisatuko dugu" azaldu du Gerrikagoitiak.

Amaia Erdozia. "Elurra egongo dela ziurtatzea zaila da guretzat, baina elurra dagoenean Urbasan eskia egin daitekeela iragartzea positiboa da" nabarmendu zuten.

Idea oso interesgarria ere iruditzen zaie Nafarroako Gobernuko turismo teknikariei. "Ingurugiro Departamentutik eta Urbasa-Andia Natur Parketik baimen guztiak daude eski pistak prestatzeko. Sakanako Elurraren eguna antolatzea positiboa da, orain arte egindakoari beste balore bat erantsen diolako eta ekimena turistei ere irekitzen zaielako. Sakanako Elurraren Eguna noiz izanen den erabakitzen denean Gobernuak bere sarea aprobetxatuko du egunaren iragarpena egiteko" aipatu zuen Patxi Saez de Lazkanok.

Alokatzeko materiala

Tolosako Achargi mendi elkarteak (943675612) denetatik alokatzen du: ipar eskiak, elur-erraketak... eta Iruñeko Basati Kirolak (948 212 345) erraketak alokatzen dituzte.

Non erabili

LASTAI GASOLINDEGIA

ALTSASU

0,04 €ko deskontua litroko, erregai guztietan.

FORD GABIRONDO

ALTSASU

Olio aldaketetan %30eko deskontua. %15eko deskontua lan mota guztietako eskulanetan.

PATXI GALARZA

IRURTZUN

%5eko deskontua harategian eta supermerkatuan 100 €rengatik txistorra opari.

JM AGIRRE HARATEGIA

LAKUNTZA

50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

DANTZALEKU TABERNA

ALTSASU

Bazkarietan eta afarietan kafea edo kopa doan.

KAXETA

ETXARRI ARANATZ

%5eko deskontua irakurketako liburuetan.

KATE INFORMATIKA

IRURTZUN

%5eko deskontua 30 €tik gorako erosketan.

CITROËN SAN MIGUEL

ALTSASU

Total olioetan %30eko deskontua. Pneumatikoen aldaketetan %30 deskontua.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€
948 564 275

Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA
PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

18. JARDUNALDIA

DONEZTEBE 4 - LAGUN ARTEA 0
BERIAIN 2 - ETXARRI ARANATZ 1
Preferenteko 18. jardunaldiak ez du Sakanan punturik utzi. Doneztebek eta Lagun Arteak partida oso lehiatua jokatu zuten. Atsedendia baino lehen bi gol sartu zituzten Doneztebekoek. Bigarren zatian hirugarrena sartu zuten etxekoek, Lagun Artea jokalaria bat gutxiagorekin geratu zen eta ondoren laugarrena sartu zuen Doneztebek. Beriainen jokatuak lehia ere oso estua izan zen. Beraingoak hobeto egokitu ziren euriari eta haizeari. Zazpigarren minuturako aurreratu ziren etxekoak, eta nahiz eta Goikoetxeak berdindu, kontraeraso batean Beriainek garaipenaren gola sartu zuen.

Saillkapena >>

1. Bidezarra	43 p
3. Lagun Artea	30 p
9. Etxarri Aranatz	25 p

Asteburuko jardunaldia

LAGUN ARTEA - BERIAIN
(Igandean, 16:30ean, Lakuntzan)
ETXARRI ARANATZ - BIDEZARRA
(Igandean, 16:00etan, Etxarri Aranatzen)

ERREGIONAL MAILA. 1. multzoa

16. JARDUNALDIA

SAN JORGE 4 - ALTSASU 3
San Jorge eta Altsasu parez pare aritu ziren. San Jorge aurreratu zen, baina Jonek bana berdintzea lortu zuen. Handik gutxira Josebak Altsasuren bigarren gola sartu zuen baina atsedendira bina berdindu zuen San Jorgek. Bigarren zatian bi gol sartu zituen San Jorgek, eta nahiz eta Josebak Altsasuren hirugarrena sartu, ez zen gehiagorako tarterik izan eta punturik gabe itzuli ziren altsasuarak.

Saillkapena >>

1. San Jorge	39 p
6. Altsasu	18 p

Asteburuko jardunaldia

ALTSASU - SALESIANOS
(Larunbatean, 11:00etan, Dantzalekun)

EMAKUMEZKOEN ERREGIONALA

15. JARDUNALDIA

ALTSASU 0 - PEÑA SPORT 1

Saillkapena >>

1. Osasuna	37 p
11. Altsasu	12 p

Otsailaren 19ko jardunaldia

ALTSASU - BURLADES

ELOMENDIKO TXAPELKETA

17. JARDUNALDIA

AGERI 2 - ZALDUA 5

Saillkapena >>

1. Unziti	41 p
4. Zaldua	31 p

Asteburuko jardunaldia

ZALDUA - APOLO (Lekunberrin)

Futbola

Sakanako Futbol
Topaketak: benjaminak
Irurtzunen

Benjaminen mailako 6. jardunaldia jokatu da igandean Irurtzunen

Sakanako Mankomunitateak Sakanako futbol klubetako laguntzarekin antolatutako Sakanako Futbol Topaketan barruan, igandean benjaminen mailako 6. jardunaldia jokatu da, Irurtzunen.

Sakanako Futbol
Topaketak

Benjaminen 6. jardunaldia (igandean Irurtzunen)

10:00etan: Lagun Artea 1 - Urdiain
10:50ean: Sutegi - Lagun Artea A
11:40ean: Etxarri - Immerplastic
12:30ean: Seguros Sayas - Txartel

Atletismoa

Mendieta eta Azkargorta,
zilarrezkoa eta brontzezkoa

Pista Estaliko Nafarroako Atletismo Txapelketan lehiatu ziren bi sakandarrak eta dominak ekarri zituzten

Otsailaren 5ean Pista Estaliko Nafarroako Atletismo Txapelketa jokatu zen Zaragozan. Bi sakandar lehiatu ziren bertan. Ruben Mendieta olaztiarra 800 metroko lasterketan aritu zen eta Fermin Azkargorta iturmendiarra, aldiz, 400 metroko lasterketan. Bi atleta hauek pistan aritzen dira, izuga-

rri entrenatzen dute eta ibilbide bikaina daramate. Aipatu txapelketa da horren isla.

Ruben Mendieta 800 metroko lasterketa konplikatu izan zen, ez baitzen ongi sentitzen. Atzean gelditu zen eta zailtasunak izan zituen, baina azkeneko buelta bikaina egin zuen, hirukorrikalari gaituzten baitzituen, eta, azkenean, bigarren iritsi zen (2:02,60). Horrela, zilarrezko domina kolokatu zuen



Ruben Mendieta eta Fermin Azkargorta, dominekin. UTZITAKOIA

olaztiarrak, merezimendu osoz.

Fermin Azkargortak, bestalde, 400 metroko lasterketan ez zuen zor-tea alde izan eta ez zen ibili pentsa-



tzen zuen bezain azkar. Azkenean, hirugarrena sartu zen helmugara (53:90) eta podiumera igo zen, brontzezko domina jasotzera.

Pilota



Ezkurdia eta Merino lau punturekin daude, irabaztera derrigortuta. NOTICIAS

Aurreko jardunaldian galdu ondoren, asteburuan irabaztera derrigortuta daude Ezkurdia-Merino II.a eta Elezkano II.a-Zabaleta

Binakako Txapelketako hasierako ligaxkako 10. jardunaldia ez zuen gauza onik ekarri sakandarrak. Ostiralean, Donostian, Irribarriak eta Rezustak 22 eta 18 irabazi zieten Ezkurdia eta Merino II. ari 489 pilotakada izan zituen partida estuan. Liderrek Merino II.a lehertzeari ekin zioten. Errio-xarrak eta Ezkurdia eraso horri eustea lortu zuten. Baina, gutxi-naka, Irribarriaren eta Rezustaren pilotakada indartsuek eragina izan zuten eta, azkenean, jokoz kanpo utzi zuten Merino. 21 eta 14 aurreratu ziren liderrak. Ezkurdia ez zuen amore eman eta lau tanto segidan egin zituen. Baina Irribarriak tantoa egin zuen eta liderrek irabazi zuten.

Bestalde, igandean, Bilbon,

Aimar Olaizola eta Alvaro Untoria izan zituzten aurkari Danel Elezkanok eta Jose Javier Zabaleta. Aspekoak ez ziren euren mailan aritu, inondik inora. Atzean Zabaleta dominatuko zela aurreikusituen, baina ez zen hala izan; deseroso aritu zen arakildarra, iparra aurkitu ezinik, eta horrek airea eman zion Olaizolari. Elezkanok ere ez zuen tantoak ohi dituen bezala bukatzen jakin. Horrela, hasieratik aldea atera zuten Olaizola II.ak eta Untoriak eta, azkenean, 22 eta 14 gailendu ziren. Olaizolak une kritikoetan gailentzeko duen dohaina erakutsi zuen beste behin.

Saillkapena

Irribarriak eta Rezustak 8 puntu dituzte eta finalerdietarako sailkatuta daude. Artolak eta Albusuk 6 puntu dituzte eta 5 puntu dituzten

Binakakoa. 11.
jardunaldia

Olaizola II.a-Untoria / Bengoetxea VI.a-Larunbe (ostiralean, 22:00etan, Urdulizen. ETB1)

Urrutikoetxea-Imaz / Altuna III.a-Barriola (larunbatean, 17:45ean, Markinan)

Iribarria-Rezusta / Elezkano II.a-Zabaleta (larunbatean, 17:45ean, Labriten. ETB1)

Ezkurdia-Merino II.a / Victor-Albisu (igandean, 17:00etan, Tafallan. ETB1)

hiru bikote daude: Elezkano II.a-Zabaleta, Olaizola II.a-Untoria eta Bengoetxea VI.a-Larunbe. Ezkurdia-Merino II.ak eta Altuna III.a-Barriolak launa puntu dituzte eta Urrutikoetxeak eta Imazek hiru.

Irabaztera derrigortuta

Final erdientarako sailkatu nahi badute irabazi beharrean daude pilotari sakandarrak. Larunbatean dagoeneko final erdientan dauden Irribarria eta Rezusta liderrak izango dituzte aurkari euren seigarren puntua lortu nahi duten Elezkano II.ak eta Zabaleta. Eta, igandean, euren 7. puntua nahi duten Victor eta Albisu menpean hartu beharko dituzte finalerdietan egoteko aukerak izateko 4 punturekin irabaztera derrigortuta dauden Ezkurdia eta Merinok. Zalantzarik gabe, emozioz betetako jardunaldia.

Zilarrezko Binakakoa. 5.
jardunaldia

Errandonea-Martija / Bakaikoa-Galarza (igandean, 17:00etan, Tafallan. ETB1)

turik gabe jarraitzen dute, finalerdietara sailkatzeko aukerarik gabe.

Bakaikoa vs Martija, etzi

Hain zuzen ere Bakaikoa eta Martijak, elkarren kontra jokatu dute txapelketako 5. jardunaldian, etzi Tafallan.

Areto futbola

Magna Gurpea
Errege Kopako
finalera, lehenengoz

Maiatzaren 6an jokatu den finalen El Pozo izango du aurkari



Maiatzaren 6an Magna Gurpea Xotak Errege Kopako finala jokatu du, El Pozoren kontra. Lehenengo aldia izango da Imanol Arregiren mutilek Errege Kopako finala jokatu dutena. Horretaz gain, Espainiako Koparako ere sailkatuta daude Xotako eta ligan ere play off-etarako sailkatzeko aukerak badituzte. Sasoi onean daude. Burelaren kontra jokatu zituen Magna Gurpeak final laurdenak. Joane-kon 1 eta 5 irabazi zuten Imanol Arregiren mutilek eta asteartean Anaitasun jokatuak itzulikoan 3 eta 0 gailendu ziren nafarrak, Araçak, Yoshikawak eta Dani Saldisek sartutako golekin. Aipatzekoa da bi jokalarik debutatu zutela Xotarekin, Asier Beaskoetxeak eta Xabi Otxotorena irurtzundarrak.

IMANOL ARREGI: "AMESTEA DOHAINIK DA"

Oso pozik zegoen Imanol Arregi entrenatzailea. "Ditugun bajak kon-tuan hartuta finalerako sailkatzeak meritu gehiago du. Eta markagailua alde genuenez, Asier Beaskoetxe eta Xabi Otxotorena atera ahal izan ditugu. Sari polita izan da euren-dako" gaineratu zuen. El Pozoren kontrako finala gogorra izango dela nabarmendu zuen "baina partida bat da, final bat, eta amestea dohainik da" azpimarratu zuen.

GAURBERRI BURELA ETA ASTE-ARTEAN ASPIL VIDAL

Lehen mailako ligan Bartzelona da liderra (46 puntu) eta talde berdea zazpigarrena da (30 puntu). Gaur atzera ere Burelaren kontra aritu beharko du Magnak, ligan. Eta asteartean talde berdeak Aspil Vidal Ribera Navarra Tuterako taldea hartuko du, 20:00etan, Anaitasun.

Saskibaloia



Naiara Diezen Gernika, Erreginaren Kopan

Naiara Diez altsasuarra kapitaina duen Gernika Lointek Bizkaia asteburuan jokatu du Erreginaren Kopa, Gironan

Zalantzarik gabe, urrezko uneak bizitzen ari da Naiara Diez saskibaloia jokalaririk altsasuarra (Altsasu, 1987, 1,81 m).

Lointek Gernika Bizkaia taldeko kapitaina da Diez, eta emakumezkoen maila gorenean, Liga Femeninan gauzak primeran doazkio talde bizkaitarrari. Saillapenean Perfumerias Avenida da liderra (35 puntu) eta Lointek Gernika Bizkaia hirugarrena da (31 puntu). Egindako primerako lan horri esker, asteburuan Erreginaren Kopa jokatzeko sailkatu da talde bizkaitarra. Taldeak atzo hartu zuen Gironako bidea.

Ilusio handiarekin

Naiara Diez eskolta da, eta Mario Lopez entrenatzaileak zuzentzen duen taldeko ezinbesteko jokalaria da, kapitaina. Diezek nabarmendu du Errege Koparen bezperako egun hauek ondo bizitzen ari direla, normalitatearekin. "Lasai

gaude, Erreginaren Kopa prestatzen ilusio askorekin gaude, pozik, baina normal segitzen dugu lana egiten. Ligari dagokionez denboraldi ona egiten ari gara. Azken urteetan asko hazi gara eta orain momentu hoberenetarikoa dago talde kopa jokatzeko. Talde garrantzitsua gara ligan, defentsa ikaragarri ona dugu eta hori erakutsi nahi dugu Kopan" adierazi du eskolta altsasuarra.

Ligako azken partidari CREF Hola! Taldeari 72 eta 46 irabazita doaz kopara gernikarrak. Hori positibo da, zalantzarik gabe. Final laurdenetan, ostiralean, Al Qazeres Extremadura izango dute aurkari. "Al Qazeres da ligan bitan irabazigaituen taldea. Partida oso zaila izango da, baina kopan edozer gerta daiteke. Gure lana egiten badugu finalerdian egoteko aukerak izango ditugu. Garen taldea izaten saiatuko gara, gure jokoa egitea aterako gara, ongi pasatzera eta horrela egiten badugu gauzak ongi aterako direla uste dut. Ostiralekoa da gure lehen finala" ondo-

Erreginaren Kopa

Ostiralean final laurdenak

18:45ean: Lacturale Araski / Star Center Uni Ferrol (CanalFEB)

21:00etan: Lointek Gernika Bizkaia / Al-Qazeres Extremadura (Teledeporte)

Larunbatean, finalerdia

19:00etan: Spar Citylift Girona / 1. kanporaketako irabazlea

21:450ean: Perfumerias Avenida / 2. kanporaketako irabazlea

Igandean, finalak

rioztatu du altsasuarra.

Gernika Lointek Bizkaia taldearen bilakaera handia izan da azken lau urteotan. "Duela 4 urte 2. mailan geunden, igoera fase ona egin genuen eta lehen mailara igo ginen. Liga Femeninako lehenengo urtea oso ona izan zen, bigarren urtean hobetu genuen eta hirugarrenean begira non gauden. Erreginaren kopa jokatzeko historikoa da klubarendako eta Gernikarendako. Izan genezakeen talderik hobereena dugu Kopan joko on bat egiteko. Orain kopan dugu ikuspuntua eta gero ikusiko dugu zer gertatzen den ligan" azaldu du Naiara Diezek. Zortetik onena opa diogu altsasuarri.

Futbola

Igoa eta Cerezoren Nafarroak Euskadiren kontra galdu eta Murtziaren kontra irabazi

Asteburuan VIII. Autonomien Arteko Emakumezkoen Espainiako Txapelketa Nazionalako 2. faseko partidak jokatu dira Athletic Klubak Lezaman dituen instalazioetan. Nafarroako 16 urtez azpiko selekzioarekin aritu dira Irati Igoa etxarriarra eta Aroa Cerezo lakuntzarra, biak emakumezkoen Altsasu futbol taldeko jokalaririk.

Ostiralean Euskadiren kontra galdu egin zuten nafarrek. Berehala aurreratu ziren Euskadikoak. Iara Lacostak berdintzea lortu zuen, baina atsedena baino lehen beste bi golsartu zituzten Euskadikoek. Bigarren zatian Irati Igoa etxarriarrak Nafarroaren aldeko gola sartu zuen eta hirunakoberdinketarengola egiteko aukera izan zuen, partida bukatzeko



Irati Igoa eta Aroa Cerezo. UTZITAKOIA

minutu baten faltan Euskadiko atezainaren aurre-aurrean egon zelako, baina baloiak ez zuen sartu nahi izan eta 3 eta 2 galdu zuten nafarrek.

Larunbatean Murtziako selekzioa izan zuten aurkari. Nafarroak partida ona jokatu zuen eta 1 eta 2 irabazi zion Murtziari.

Pista Txirrindularitza

Espainiako Kopa: Bakarne Gonzalez hirugarrena

Hodei Zia eta Josu Etxeberria seigarrenak sailkatu ziren eta Mateo Gonzalezek eta Joana Irastorzak ez zuten punturik bildu

Larunbatean jokatu zen, Madrilgo Galapagaren, 2017ko Pistako Espainiako Kopako lehen jardunaldia. Junior mailako abiadura mailan, Burunda klubeko Hodei Zia (Nafarroa) seigarrena dago (6 puntu). Keirin proban parte hartu zuen Ziak. Junior mailako iraupen txirrindulari kategorian, aldiz, Aralar klubeko Josu Etxeberria iturmendiarrak (Nafarroa) seigarrena sailkatu zen (7 puntu). Puntuazio proban aritu zen Etxeberria eta laugarrena sailkatu zen bertan. Burunda klubeko Mateo Gonzalezek ez zuen punturik biltzea lortu.

Emakumezkoen junior mailako abiadura kategorian Bakarne Gon-



Irastorza eta Gonzalez. FACEBOOK

zalez altsasuarra (Nafarroa) 3.a dago kopako saillapenean (26 puntu). 200 metroko proban 7 puntu bildu zituen Bakarnek, keirinean irabazita, 12 puntu, eta abiadura proban 7 puntu. Kadeteen mailan Joana Irastorza etxarriarrak (CAF Turnkey Eng.) ez zuen punturik bildu.

2017-2018 ikasturtea

IZENA AURRETIK EMATEKO EPEA: **otsailaren 13tik 17ra**



**ZELANDI
HERRI-ESKOLA**

Haur Hezkuntza
(3-6 urte)

Lehen Hezkuntza
(6-12 urte)

Eskolaldi etengabea
A eta D ereduak

Ingelera
eta informatika
Haur Hezkuntzatik

Jangela zerbitzua

Eskolaz kanpoko
jarduerak



“Gure nahia Frankismoari epaiketa poetiko bat egitea da”

Zoila Berastegi

Francoren bilobari gutuna antzezlaneko aktorea

Arbizuarrari ilusio berezia eragiten dio bihar Altsasun, lortuak areto nagusian eskainiko duten emanaldiak. Sarrerak kultur-guneko weborrian daude salgai

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

Pasa den urteko urriaz geroztik, Euskal Herrian barna dabil *Francoren bilobari gutuna* antzezlan. Frankismo garaian ireki, eta oraindik itxi, sendatu ez diren zauriak jartzen ditu jo puntuan Artedrama, Le Petit Theatre de Pain eta Dejabu Panpin Laborategia antzerki konpainiek hezurmitutako obra honek. Bertan aktore lanetan dabil Guaixeko kolaboratzailea den Zoila Berastegi arbizuarra. Haren ahotik jaso ditugu obraren xehetasunak.

Zein da antzezlan honen argumentua?

Abiapuntu gisa bi kontu hartu genituen. Alde batetik, ospitale kontzeptua, eta berau aipatzerakoan burura etortzen zaigun guztia: murrizketak, krisi egoera, jaiotzak

eta heriotzak... Eta bestetik, frankismoaren eta nazismoaren arteko konparazioa. Esan daiteke hori dela antzezlanaren hari nagusia. Nazismoak epaiketa bat izan du, baina frankismoak ez. Orduan, gure nahia da frankismoari epaiketa poetiko bat egitea, eta, era berean, euskaldunok frankismo garaian eta diktadura ostean bizi izan dugun mina azaleratzea.

Beraz, antzezlan iraganeko zauriak ixten saiatzen da.

Bai. Baina kontua da, zauriak ixteko, lehenik eta behin zabaldu egin behar direla. Obra honekin, barrutik kanporako lan bat egiten dugu. Eta, halaber, saiatzen gara indibiduotik kolektibora, eta intimitatetik publikora salto egiten. Antzezlanean hiru ardatz horiek ematen direla esan daiteke. Zer bait sendatzeko, atera egin behar da lehendabizi. Eta kanpora ateratze hori, aitortza hori, sendabide izan daiteke bere horretan. Hori da antzezlan honekin gure he-

“Obra honekin, indibiduotik kolektibora, eta intimitatetik publikora salto egiten saiatzen gara”.

rriari eskaini nahi dioguna.

Francoren bilobari gutuna. Zer esanahi dauka izenburuak?

Antzezlan sortzeko orduan, Gunther Anders filosofoaren *Gu, Eichmannen seme-alabak* obra hartu genuen abiapuntu gisa. Adolf Eichmann nazi bat izan zen, eta sistema haren barruan kargu nahiko garrantzitsua zeukan. Nazismoaren ondoren, Israelera eramana, bertan epaitu, eta hil egin zuten. Orduan, Gunther Anders filosofo judutarrak ironiaz beteriko gutun bat bidaltzen dio Eichmannen semeari. Bertan dio ez duela Eichmannen semea delako epaitu behar. Bestela, naziek juduekin egiten zuten gauza bera egiten ariko zen. Baina proposatzen dio nazismoaren kontrako borrokara batu dadila. Orduan, guk analogia bat egiten dugu istorio horrekin.



“Euskal Herriko antzerkia, neurri handi batean, prekaritateagatik da ezaguna. Bira luzeak ez dira batere ohikoak”.

Ba al dago bigarren mailako mezurik obran?
Baietz esan daiteke. Ospitalea

metafora bat da; Euskal Herria irudikatzen du. Eta bertan badaude minak, sendatu nahi duten pertsonak, hil ezinik dabiltzanak... Metafora hori gaur egungo egoera baliatuz erabili dugu.

Hori guztia zer tonurekin kontatu duzue? Tarterik egin diozue umoreari?

Denetatik dago. Gai potoloa da antzezlanak jorratzen duena, baina umorea batzuetan ere behar da, publikoak lasaitasun momentu batzuk ere izan ditzan. Denera

SAN DONATO
HERRI ESKOLA



AURREMATRIKULA EPEA

Otsailaren 13tik 17ra



herriaren eskola
euskalduna eta publikoa

www.etxarrikoeskola.com
cpetxarr@educacion.navarra.es
Tel. 948 567 003

bazterretik

Juankar Mugartza

Milakotxu urdindarra

On Jose Maria Satrustegi noizean behin Altsasura hurbiltzen zen eta bertako azken euskaldunekin biltzea gustuko zuen, euskararen inguruan egiten ari zen ikerketak dokumentatzeko asmoz. Oso heziketa onekoa zen, ikasia, euskara garbia beti ezpainen eta, apai-za izan arren, emakumeekin oso atsegina izaten zekiena. Nire izekoren iritziz, “un caballero”.

Urdiain, jakina, ongi ezagutzen zuen hango apaiza zelako. Zer esanikez, Arruazu (sorterria) eta Sakana osoa. Ezeren gaintetik maite zituen. Bihotza ongi errotua zuen bere ama lurtean.

Altsasuri buruz zuen ikuspegia oraingo askok ezagutu beharko lukete haien lotsarako. On Jose Mariaren iritziz Altsasu herri abegikorra zen guztiz. Euskara galtzen ari zen, bai, eta hori mingarria zitzaion berari, baina, beste alde batetik Altsasuk zeukan hiri kosmopolitaren itxura hark ere era-

kartzen zuen aldi berean: leku askotako jendea hainbat lekutatik etorriak. Ez zen eta ez da herri itxi bat. Orain Nafarroa lur anitza dela esaten dugunean, kontuan hartu behar dugu halaxekoa izan dela Altsasu menderen mendetan (edo gutxienez industrializazioa, fundizioa eta trenaren iritsi zirenetik). Ez dugu ezer berririk asmatu.

Urte haietan, pasa den mendearren 60ko hamarkadan, Nafarroako Foru Aldundiak euskara sustatzeko argitaratzen zuen “Bianako Printzea” aldizkarian idazten zuen eta behin baino gehiagotan eman zuen gure herrien berri. Eta horretara noa. Altsasu eta Urdian ongi ezagutzen zituen eta haien arteko haserre handiak ere bai. Beti borrokan! Guztiz normala aldameneko herrien artean. Gauza jakina da Altsasu eta Urdiainen artean beti gora-beherakegon direla San Pedro baselizaren jabegoagatik, batzuek haiena dela eta besteokebeina. Iza-tez ere, elizaren erditik doa bi herrien muga. Sarrera Altsasuko-

tik du eta Urdingoan aldea. Kontua da aldizkari horretako artikululu batean beste liskar ezezagunago baten berri eman zuela.

Berak idatzi zuenez, egun batez Altsasuko alkatea joan zen Urdiaina, mugarria lekutik aldatu zegoela esanez. Urdindarrak ezetz eta besteak baietz, han ez omen zen biderik ikusten. Dena dela, orduan arazo bat gertatzen zelarik ez zuten zibilen beharrik, inori ez zitzaion bururaten haiei deitzea. Ezta pentsatu ere! Urdiainen Milakotxuri hots egiten zioten orduan. Gurutzearren gainaneskuak jartzen zizkieten etagaldetu besterik ez zuten egia jakiteko: - Jainkoaren izenean, esan mugarri hori mugiturik dagoen edo ez. - Ez! Oraindo ez duela denbora asko, horren gainean jan nuen nik naskia. Bere lekuan dago.

Ogi zuria aberatsen gauza zen eta naskia, berriz, pobreen janaria. Arto-irinez egindako ogi buruhandi bat. Milakotxu urdindarrak justizia banatzen epailek baino hobeki zekien. Altsasukoak kalera!

ia bi ordu irauten ditu antzezlanak, eta denetarik tonuak erabiltzen saiatzen gara.

Zer protagonista dauka istorio honek?

Oso obra korala da. Istorio ezberdinak nahasten dira. Dena den, bi istorio, bi ildo nagusi daude: batek Joxean dago, Tourette sindromea daukan gizon bat; eta, bestetik, leuzemia daukan Iñaki. Hauxez gain, beste hainbat hari daude, eta bakoitzak min edo gaitz bat dakar.

Zuk zein pertsonaia antzetzten duzu?

Denok pertsonaia bat baino gehiago ari gara antzetzten. Baina nire kasuan, nagusia, hil nahi eta ezin duen emakume bat da. Oraindik itxi gabeko istorio bat dauka, eta horregatik ezin du hil. Maitasun-istorio bat dela esan daiteke.

Lan taldeaz zer azpimarratuko zenuke?

Pasada bat dela. Bizitza osoa daramate antzerkigintzan, eta kristoren apustua egiten dute euskal antzerkiaren alde. Iruditzen zait oso zorteduna naizela. Sekulako esperientzia ari naiz bizitzen, bai lan arloan, baita maila pertsonalean ere. Oso eskertuta nago.

Nola sortu zitzaizun aukera hau?

Artedramakoek euskal antzerkigintzari loturiko jardunaldi batzuk antolatzen dituzte urtero, Aulestin. Behin hara joateko aukera izan nuen, eta bertan ezagutu nituen bai Ximon Fuchs -antzezlaneko zuzendaria-, eta bai Ander Lipus -akto-

rea-. Eta obra honetarako taldea osatu behar zutenean, nitaz oroitu ziren.

Lastailean hasi zenuten bira, eta garagarrilean despedituko duzue. Euskal Herriko antzerkigintzan, halakoak ez dira batere ohikoak.

Ez, inondik inora. Hemengo antzerkia, neurri handi batean, prekaritateagatik da ezaguna. Halako birak salbuespena dira, eta era berean, apustu irmo baten eta urte luzez egindako lanaren emaitza. Jende askoren lana dago atzean; eta ez soilik zuzendari eta aktoreena.

Orain arte, zer erantzun jaso duzue publikoaren partetik?

Egia esan, erantzuna oso ona ari da izaten. Zu pozik egon zaitezke egin duzun lanarekin, baina jendaurrea eraman arte ez dakizu nola jasokoden, zer helduko den eta zer ez... Finen, ez dago antzerkirik publikorik gabe. Eta kasu honetan, ikusleen erantzuna ikaragarria ari da izaten.

Bihar Altsasun izanen zarete. Suposatzen dut emanaldi hori berezia izanen dela zuretako.

Bai, ilusio handia eragiten dit Sakanan antzezteak. Oso pozik nago. Jendeari lortiar gerturatzea gomendatzen diot; bereziki, antzerkian normalean hurbiltzen ez direnei. Antzezlanak eta antzezlanak daude, eta uste dut hau oso zintzoa dela. Material pertsonal asko jarri dugu, eta sormen prozesuan biluztu garen heinean, publikoak hori igartzen du. Aukera polita dute sakan-darrek, eta ez galtzeko esango nieke.

+www.guaixe.eus

Hiru sakandar Nafarroako Bertsolari Txapelketan

Lakuntzak final-laurdenetako saioa hartuko du otsailaren 26an, 17:30ean, kultur etxean



43. Nafarroako Bertsolari Txapelketa otsailaren 18an Tafallan hasi eta apirilaren 8an Iruñean despedituko da, Anaitasuna kiroldegian. 30 bertsolari izanen dira final-laurdenetan ariko direnak. Sakanarrak hiru dira: Oier Lakuntza urdindarra eta Eneko Lazkoz eta Saats Karasatorre etxarriarrak. Azken hori estreinako lehiatuko da txapelketan, abenduan jokatuako kanporaketa irabazi eta gero. Bestalde, Joseba Andoni Beltza epaile gisa ariko da, beste sei kiderekin batera. Eta Maider Ansa gai-jartzaileen talde-

an dago.

Txapelketak saio bakarra izanen du Sakanan, Lakuntzako kultur etxean otsailaren 26an jokatu dena. Hirugarren final-laurdena izanen da eta sei bertsolari ariko dira kantuan, haietako bi sakandarrak: Aimar Karrika, Iker Gorosterrazu, Joanes Illarregi, Egoitz Gorosterrazu, Ene-

ko Lazkoz eta Oier Lakuntza. Iruritan martxoaren 4an jokatu den final-erdian, laugarrenean, ariko da bertsotan Saats Karasatorre.

Final-laurdekoetarako 18 bertsolari sailkatuko dira. Hiru saio jokatu dira. Bakoitzeko onena eta puntuazio onena duten bost bertsolariak sailkatuko dira finalerako.

Album ilustratuak sortzen ikasteko bigarren lantegi bat

Larunbateko goizeko txanda bete ondoren, arratsalderako beste bat eskaini du Mank-ek.

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak, estreinako, helduek album ilustratuak sortzen ikasteko lantegia antolatu zuen. Larunbatean izanenda, goizez. Deialdiak erantzun ona izan du eta taldea osatu da, goizekoa (10:30etik 13:30era). Hori ikusita Mank-ek arratsalderako beste txanda bat eskaini du, 15:30etik 18:30era. Arbizuko liburutegian izanen dira bi lantegiak. Bai goizez bai arratsaldez Yolanda Arrieta idazlea eta Aitziber Alonso ilustratzailea izanen dira irakasleak. Mank-ek Arbizuko Udalen laguntzaz antolatutako lantegia. Ibarreko erakundeak Nafarroako beste euskara zerbitzu batzuekin antolatutako Etxepare Saria egitasmoren barruan daude album ilustratuen lantegiak. Orain arte soilik haurrei zuzenduta egin dira.

Ipuruko tailerra Olatzagutian



Hilaren 25ean ospatuko den herri inauteriei begira, Olatzagutiko Udaleko Kultura Zerbitzuak ipuruko tailerra antolatu du. Tailerra otsailaren 14an izanen da, 18:30ean, Akelarre ludotekan. 13 urtetik gorakoek eman dezakete izena udaletxean, 10:00etatik 14:00etara, gaur arte. Izen ematearekin batera 20 euro ordaindu behar dira.

Olatzagutiko inauteriak berreskuratu zirela aurten 25 urte beteiko dira. Horregatik, Kultura Zerbitzuak aurretik haurrei zuzendutako iratxo eta nesken kapela egiteko tailerra antolatu du batek eta, bestetik, zortzikoa ikasteko beste tailerra ere. Gainera, otsailaren 17an eta 18an, ostiralean eta larunbatean, 19:00etan inauterien inguruko azalpenak emanen ditu Adelaida Kintanak hitzaldi banatan. Lehena euskaraz eta bigarrena gaztelaniaz.

Ongi etorri

SAKANAKO HERRI ESKOLEN KOMUNITATERA

aurrematrikulazio epea otsailaren 13tik 17ra arte

Irurtzungo Atakondoa HE http://atakondoa.educacion.navarra.es cpirurtz@educacion.navarra.es 948500228 GE: atakondoaapyma@gmail.com	Urdiango HE cpurdiai@educacion.navarra.es 948468345 GE: geurdiaian@gmail.com	Altsasuko Zelandi HE http://zelandieskola.educacion.navarra.es cpaltsasu@educacion.navarra.es 948564839 GE: zelandi.apyma@gmail.com
Lakuntzako Luis Fuentes HE http://lakuntzakoeskola.educacion.navarra.es/web1 cplakunt@educacion.navarra.es 948576020-GE: apyma@hotmail.com	Iturmendiko Arrano Beltza HE cpiturme@educacion.navarra.es 948563414 GE: iturmendikogurasoak@gmail.com	Uharteko San Miguel HE http://uhartearakilgoeskola.educacion.navarra.es cpuharte@educacion.navarra.es 948567100 GE: sanmiguelapyma@gmail.com
Etxarriko San Donato HE www.etxarrikoeskola.com cpetxarr@educacion.navarra.es 948567003 GE: apymasandonato@gmail.com	Olaztikoa Domingo Bados HE http://sites.google.com/a/educacion.navarra.es/olaztikoeskola cpolazag@educacion.navarra.es 948563307-GE: apymabados@yahoo.es	Arbizuko HE arbizukoherrieskola.blogspot.com cparbizu@educacion.navarra.es 948460763 GE: arbizukoeskolakofamiliak@gmail.com

izen ematea

Gaur 20:00etara arte, 948 017 777 edo liburutegia@arbizu.eus.



G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: %	15	25	40	15	30	15	20
Min: 5 Max: 10	Min: 5 Max: 15	Min: 7 Max: 13	Min: 4 Max: 12	Min: 9 Max: 13	Min: 7 Max: 12	Min: 9 Max: 14	

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m'
Irurtzun	15.5	2	91.6
Etxarri A.	14.4	1.7	84.7
Altsasu	14	2.5	99.4
Aralar	6.9	-3.5	36.7
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia>>

	ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
	12	18	26	5

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Etxe pasiboetarako egokia

Isolamendu nukleo indartsua

Beirak lehorrean jarrita

Aparteko azala koloreztatua

Bazkide sarituak

IDOIA LANZ IRIGOIEN (LAKUNTZA)

PATXI FLORES ANDUEZA (LAKUNTZA)

MARGARI IGLESIAS MENDILUZE (ALTSASU)

ESTELA OLMEDO SANTANA (ALTSASU)

OTSAILEKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri: 2 sarrera. Artazako Kanpina: %10eko deskontua. Lacturale: esneki lotea. Gaztezulo: 3 hilabetez doan. Magna Gurpea Xota: Bina sarrera

2., 3. ETA 4. SARIA:

Artazako Kanpina: %10eko deskontua. Lacturale: esneki lotea. Gaztezulo: 3 hilabetez doan. Magna Gurpea Xota: Bina sarrera

>> 11 galdera

Urדיאingo kintoak

1999an jaiotakoak

Maider Betelu Ganboa

1. Zeintzuk zarete aurtego kintoak?
Oihane Huarte, Urko Izagirre, Oihan Azkona, Mikel Apaolaza, Diana Machado, Ioana Berastegi, Gaizka Lanas, Julen Goikoetxea, Javier Flores eta Luka Zubiria.
2. Baina kintoez gain nortzuk ospatzen dituzue Santa Agedak Urדיאinen?
Kinto zaharrak, urte bat gehiago dutenak, aurten hamarren bat izango direnak, eta kinto gazteak, urte bat gutxiago dutenak, aurten lau direnak. Eta gero beti kintoak daude, 20 urtetik gora dituztenak. Urtero egoten da beti kintoren bat. Aurten bosten bat izango dira. Hortaz, aurten 28-30en batek ospatuko dugu Santa Ageda.
3. Noiz hasiko duzue festa?
Gaur, ostiralean, bazkaltzera bilduko gara lokalean, antroan. Catering bat alokatzen dugu ostiraletik igandera bitarteko bazkari eta afarietarako, larunbateko afarirako izan ezik, Kaluxan egingo duguna. Ostiral arratsaldean boletoak saltzen hasiko gara. Izan ere, igandean, zortzikoaren ondoren, axuri bat zozketatuko dugu. 1.300 txartel inguru egin ditugu, saltzeko. Iaz guztiak saldu genituen, ea aurten. Eta igandean, bazkaldu ondoren, eskean ibiliko gara.
4. Urדיאingo kintoak nola janzen dira?
Kaxero Baserritarrez, bai mutilak eta baita neskek ere, eta kaikuekin. Guk beti kintoak kaxerobaserritarrez ezagutu ditugu. Normalean bi praka pare izaten ditugu eta neskek bi traje, aldatzeko.
5. Boletoak saltzera baserrietara ere jaisten zarete?
Bai, larunbatean, bazkaldu ondo-



ren, bostak aldera jaitsiko gara. Lauzpabost baserri ingurutara joaten gara: Errota, Sarabe... Boletoak saltzeaz gain, bertan jota eta porrusalda dantzaten ditugu. Trikitixak lagunduta ibiltzen gara. Ostiralean eta igandean Arbizuko trikitilariekin eta larunbatean Urדיאingo kinto batek jo behar du, bere lagun batekin batera.

6. Kintoez Urדיאingo zortziko dantzatuko duzue igandean.
Bai, igande eguerdian, eguraldiak laguntzen badu plazan eta beste la frontoian. Aurten 7 mutil eta 3 neska gara kintoak. 3 neskek eta 5 mutilek dantzatuko dugu; beraz, 8 zortziko izango dira guztira.

7. Bitxia hori!
Aurreko urtean lehenengoz kinto batek zortziko dantzatu zuen. Aurten hiru kintak dantzatzera animatu dira. Bi kintok ezin izango dute dantzatu, entseguetara etortzea ezinezkoa izan dutelako, bat Iruñekoa delako eta bestea Urbanan bizi delako. Bestalde, badaude urteak zortziko dantzatzeko nahikoa kintorik ez daudela eta kasu horretan kinto gazteek edo kinto zaharrek ere dantzatzendute. Ziurrenik hori gertatuko da heldu den urtean.

8. Urדיאingo zortziko ikasteko zaila da?
Ez. Ipi da gure irakaslea eta oso ongi ikasten dugu berarekin. Duela hilabete pasa hasi ginen entsetatzen, astero bizpahiru egunez ordutxo bat. Aurreko urtean ere ikasten aritu ginen. Larunbatean entsegu orokor batekin guren eta ea igandean ongi ateratzen den.

9. Zortzikoan kinto gehienek amak ateratzen dituzue dantzara...
Bai, normalean bai. Baina aurten neskalaguna aterako du gutako norbaitek, beste kinto batek aita... denetarik izangoda. Izan ere, hemen bi pertsona ateratzen dira dantzara. Eta zortziko dantzaten den bitartean ardo banatzen da herriko zilarrezko katiluetan. Bestalde, larunbategurdian 25 urte betetzen dituen kintada izango da plazan zortziko dantzatuko duena.

10. Izan ere, zuetaz gain, Urדיאingo kintada guztiak gehitzen dira larunbatean festara.
Bai, kintada guztiak egiten dute bazkaria. Gero, arratsaldean musika izango da Kaluxan eta gauean DJ-a Aitziber elkartean. Larunbata egun handia da.

11. Zer da festa honetako politena zuen iritzi?
Dena: kriston parrandak, zortziko, dagoen giroa... Larunbat gauean bazkari Altsasura joango gara parrandara. Behin festa bukatuta, astelehenetik aurrera, ikasleak gara gehienak eta, hurrengo astean azterketak ditugu. Batzuek astelehenean bertan ditugu azterketak. Iruñean eta Goierri ez dakite zer diren kintoak. "Ez atera!" esaten digute. Ez dute ulertzen, sarritan esaten digute beti festetan gaude. Baina guk Santa Ageda ospatuko dugu eta azterketetan ahal duguna egingo dugu.

Papergintza pertsonalizatua

Agendak

Orriak

Karpetak

Txartelak

Koadernak

gk

KOMUNIKAZIOA

USB-ak

Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107
gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus